


88

4 euro • 2004ko MAIATZA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

GAIA: HARRERA, ETXEAK ETA FAMILIAK • ELKARRIZKETA: MARTA MARFFEI • ESPERIENTZIA: BAZEN BEHIN • EKARPENA: INGURUMEN HEZKUNTZA • GAZTELU PROIEKTUA •



UDA KO TOPAKETAK

Modenako (Italia)

0-6 urteko udal haur eskolak

OPORRETAKO KOADERNO BERRIAK



Jolas eginez eta ondo pasatuz
ikasitakoa ahaztu gabe
edukitzeko aproposak.



gaia

HARRERA: ETXEAK ETA FAMILIAK

Harrera etxeetako eta familietako ateak ireki dizkigute eta aukera izan dugu bertan bizitzeko diren gazteen egoera ezagutzeko hezitzaileen eta harrera familien elkarteko kideen eskutik.



elkarrizketa

MARTA MARFFEI

Argentinako CTERA hezkuntza sindikatu nazionalako idazkari nagusia da eskametu handiko emakume hau. Hango hezkuntzaren egoera izan dugu hizpide; kezkak, arazoak eta erronkak.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

HARRERA: ETXEAK ETA FAMILIAK

16 elkarrizketa

MARTA MARFFEI

26 esperientzia

Bazen behin...

Gure aitona-amonen kontu aberatsak

28 ekarpena

Ingurumen hezkuntza: XXI. mendeko moda ala erronka?

Sukarrieta taldea

32 hik hasi udako topaketa pedagogikoak

Modenako (Italia) 0-6 urteko udal haur eskolak

Artearen txokoa

35 berriak

Gaztelu proiektua

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

Bilboren bihotzean D eredua gora


Bilboko El Salvador ikastetxea

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ixiar Eizaguirre Erredakzio batzordea: Mikel Estorika, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbatua, Felix Basurko Aines Duafau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erricndo, Iobia Fernandez, Anaia Vazquez, Iontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Gorbun. Diseinua: TRAMGRAF!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Aldizkari honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du. Data: 2004-IV-20.

Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliatzen dira. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.



hik hasik

zure parte-hartzea

ezinbestekoa du
harpide zaitez!

40 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

www.hikhasi.com

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel.:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

40 euro

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



editoriala maiatza

Eskola hobetzekotan espiritu kritikoa sustatu beharra dago



Politikak eta politikariek eskola bakoitzeko jarduna gehiegi baldintzatzen dutela iruditzen zaigu, kolektibo bakoitzak bere zilborrari gehiegi begiratzen diola, eta hausnarketa komunaren falta nabaritzen dugu.

Azkenaldian, hainbat gertakari garrantzitsu bizi izan ditugu, eta gertakari horiek eskolako egunerokotasunean eragina dutela ere ikusi dugu.

Irakeko gerraren ondorioz Madril en egindako erasoak Espainiako eta Frantziako estatuaren hauteskundeak baldintzatu ditu, eta seguruenik, egitear dauden Europako parlamenturako hauteskundeak ere baldintzatuko ditu.

Hori guztia politika izanik, ba al du eraginik Euskal Herriko eskoletan? Guk baietz uste dugu, baina ez dakiguna da zenbateraino.

PPk martxan jarri behar zuen Kalitate Legea ez duela ezarriko esan zuen Kataluniako hezkuntza ordezkariak, eta EAeko Anjeles Iztuetak ere gauza bera esan du. Nafarroako Hezkuntza kontseilari Luis Campoyk, oster, guztiz kontrakoa adierazi zuen.

Hezkuntza ikuspegitik hain kaltegarri izan zitekeen Kalitate Legea ez dela ezarriko jakiteak ikastetxe askotako

giroa lasaitu egin duela esan liteke.

Gertakariak nola izan diren aztertuta, ondorengo galderak bururatzen zaizkigu: gurasoak, irakasleak, ikasleak, langileak, herritarrak eta gehiengo zabala ditxosozko legearen aurka egonda, zergatik pentsatzen zen aplikatzea? Eskola komunitateak kaltegarritzat jotzen baldin bazuen, zertarako bere ezarpena? Aurreko galderen erantzuna aurkitzeko asmoz, askok, norabide bakarrean begiratuko dute.

Dena den, badago egin beharreko beste galdera bat: Kalitate Legearen aurkako mobilizazioak eta adierazpenak egin ziren, baina ikastetxe bakoitzera eramanez al dira sakoneko eztabaida eta hausnarketa? Ikastetxe bakoitzean aztertu al da bere hezkuntza proiektuan zer aldaketa ekarriko zukeen eta horren aurrean zer jarrera hartuko zatekeen? Alaraudien zapalgailuak ikastetxe askoren proiektuak aldatuko ote tuen?

Badakigu elkarteren batek garbi agertu duela bere tinkotasuna, informatu duela haren ikastetxeetan, eztabaidatu dutela eta euren erabakia publiko egin dutela. Zoriontzekoa da agertu duten hezitzaile heldutasunagatik, zabaldu duten jarrera kritikoaagatik.

Guk Euskal Herri mailako hausnarketek garrantzi handia dutela deritzogu. Egiten direnak txalotzea eta goraitpatzea dagokigu, baina zerbait falta da.

Politikak eta politikariek eskola bakoitzeko jarduna gehiegi baldintzatzen dutela iruditzen zaigu, kolektibo bakoitzak bere zilborrari gehiegi begiratzen diola, eta hausnarketa komunaren falta nabaritzen dugu.

Hala ere, ikastetxe bakoitzak bere nortasun propioa izan beharko lukeelakoan gaude, bizi duen inguruan sustraitua eta etorkizunerako nahi duen jende eredia lortzeko bitartekoak jarriko dituen. Eta horretarako, ezinbestekoa da eskola komunitatearen hausnarketa.

kronika

Maiatzaren hasierarekin batera ospatu du Ikas-Bik aurtengo bere jaialdia eta ikasturte bukaera bitartean beste hainbat festa ere izango dira. Euskal Eskola Nazionalaren III. Eguna ere ospatu berria da Azpeitian. Giro onean pasatako egunak hausnarketarako ere balio nahi izan zuen. Izan ere, helburuetako bat ikastolen sarearen barnean gogoeta bultzatzea da, nazio kontzientzia suspertzeko eta barneko indar bilketa egiteko. Beste xede bat ikastola Euskal Herriaren eskola nazionala dela aldarrikatzea da. Aurtengo egunaren berezitasuna Nabarraldeko historialarien omenaldiak hartu du. Historialari horiek egiten duten lan isila omendu nahi izan dute antolatzaileek, euren esanetan "historia estrategikoa baita, hizkuntzarekin batera, herri identitatea sortzeko". Hala, 23 historialari omendu dituzte, horietatik 15 hilda daudenak. Era berean, hezkuntza sistemak herrigintzan duen garrantziaz jabeturik, bultzatzaileek euskal hezkuntzaren sare propioa eraikitzeko lanean jarraitu beharra aldarrikatu dute.



Kalitate Legea indargabetu egingo du PSOEk

Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako presidente berria Kalitate Legearen aurka agertu da hasieratik, eta ekainean Legea garatzeko dekretuak indargabetuko dituela adierazi du. Horrekin, PPK hezkuntza erreformatzeko aurreikusitako epeak eten egingo liriteke eta 2004-2005 ikasturtean ez da indarrean jarriko. Bitartean, PSOEk uda pasa ondoren lege proiektu berria aurkeztu beharko luke parlamentuan, eta 2005-2006 ikasturterako aplikatuko litzateke.

Trantsizio garai honetan Euskal Herriari Kalitate Legearen ezarpena eteteke aldarrikapenak entzun dira. Irakas-kuntza publikoko mahaiak (hor daude EHIGE, Sortzen-Ikasbatuaz, Haur Eskolen Koordinakundea, BIHE, Sarean, CCOO, EILAS, ELA, LAB eta UGT) bertan behera uzteko eskatu du, harik eta

hezkuntza eragile guztien, autonomia erkidegoen eta administrazio berriaren artean hitzarmena lortzen duten arte. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari zera eskatu diote: berehala eten ditzala proposatuta dauden aldaketa guztiak; luzapena eman dezala LOCEtik eratorri eta abian diren dekretu guztietarako eta informazio zehatzak eman diezaiela ikastetxeei; hezkuntza eragile guztiak bilduko dituen batzorde bat era dezala; eta hitzarmenean oinarritutako erabakiak har ditzala.

Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuak adierazi du ados dauden Legearen zenbait ataletan (besteak beste, ingelesaren ezarpen goiztiarra eta 0-6 etapa) EAeko hezkuntza sistema legearen aurretik doala eta horretan jarraituko dela, betiere Europa ardatzat harturik. Ados ez dauden atalei dagokienez, ez dituztela ezarriko aipatu du.

Nafarroako Hezkuntza kontseilari Luis Campoyk, aldiz, LOCE aplikatutako dutela adierazi du, PSOEk egin ditzakeen aldaketak etorri bitartean.

Kataluniako eta Kanariar Irltako gobernuak Kalitate Legea ez dutela ezarriko esan dute. Andaluzia, Aragoi, Asturias, Kanariar Irlak, Gaztela-Mantxa, Katalunia, Euskadi eta Extremadurako Eskola Kontseiluek adierazpen bat sinatu dute gobernuari LOCEren ezarpenaren egutegia gelditzeko eskatuz.

Hezkuntza miresgarria da, baina ez da ahaztu behar, benetan merezi duena ezin dela irakatsi.

Oskar Wilde



Nafarroan oposizioen sistema aldatzeko epai-egietara jo dute sindikatuek

EILAS, ELA eta LAB sindikatuek helegitea aurkeztu dute Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak Bigarren Hezkuntzarako egindako oposizio deialdiaren aurka. Eta Behatokia, Oinarriak plataforma, Kontseilua eta Euskal Kultur Elkargoaren babesa jaso dute.

Sindikatuaren hitzetan, oposizioen deialdia "legez kontrakoa da hizkuntza eskubideak urratzen dituelako". Horrez gain, "berdintasun eta gaitasun oinarrien aurkakoa" ere badela diote. Badute arrazoi bat hori esateko: Nafarroako Gobernuak hezkuntza espezialitateak (Matematika, Plastika, Zientziak eta gainerakoak) hizkuntzaren arabera banatzen dituela; hau da, euskarazko-

ak alde batetik eta gaztelaniazkoak bestetik. Horrela, hizkuntza bakoitzarentzat epaimahai bat eta zerrenda bat jartzen du, eta azterketak ere egun berean dira. Gauzak horrela, pertsona batek ezin du bietara aurkeztu, aukeratu egin behar du azterketa gaztelaniaz edo euskaraz egin.

Sindikatuak ez dute oposizioa bertan behera utzi nahi; eskatzen dutena da lehiaketa egiteko sistema aldatzea, "oraingoa legearen kontrakoa delako".

Aurretik ere behin eta berriz eskatu diote Nafarroako Gobernuari sistema aldatzeko, baina erantzuna beti ezezkoa izan da. Horregatik erabaki dute helegitea ezartzea, bai sindikatuek eta baita hainbat norbanakok ere.

EAEn ere sindikatuek badute eskaerarik. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren negoziatzeko borondaterik eza salatu dute prentsa ohar baten bidez. CCOO, EILAS, ELA, LAB eta UGT sindikatuetakako ordezkariak alde egin zuten bileran batetik, bileran ez zelako aurreikusitakoa aztertu. DBHko ebaluazioa eta promozioa, Batxilergoko antolaketa eta zuzendarien izendapena aztertzekoak ziren bileran hartan, baina ez zen halakorik egin, sindikatuek gain beste eragile batzuk ere agertu zirelako bilerara. Sindikatuek eztabaidarako egutegi bat prestatzeko eskatu diote, datorren ikasturterako neurriak eta erabakiak har daitezten.

ISO eta EFQM ziurtagiriak bezala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Kalitate Kudeaketarako Sistema jarri zuen martxan iaz Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 24 ikastetxetan eta 18 Berritzeguneetan. Aurrera begira, eskola gehiagotan zabalduko da.

Hezkuntzaren berezitasunera egokitutako kalitate ziurtagiria lortzeko programa da, hobekuntzak administrazio arloan, arlo pedagogikoan eta akademikoan erdiesteko. Sarean egiten da lan eta horrek elkarren berri izateko aukera ematen du. Era berean, talde lana ere bultzatzen du. Bi urteko proiektu pilotuaren ondoren, ikusatzailleek ikasturte honen amaieran erabakiko dute zentro horiei ziurtagiria eman edo ez. Ziurtagiria jasotzen dutenek, hiru urteko beste proiektu batean sartzeko aukera izanen dute: ikastetxeen autonomia garatzekoa, hain zuzen ere. Ildo horretan, gaur egun erabakiak Lakuan hartzen dira, eta horietako batzuk ikastetxeen eskuetan utzi nahi dira.

Horrela, arlo pedagogikoa, ekonomikoa eta pertsonala kudeatzeko aukerak handitu egingo dira. Lehenengoari dagokionez, oinarriko curriculumare errespetatuz, ikastetxeen esku geldituko da proiektuen antolaketa. Arlo pertsonalaren kasuan, epe motzeko ordezkapenentarako lan poltsak zentroek kudeatu ahal izango dituzte. Eta arlo ekonomikoan malgutasun gehiago izango dute obra txikiak egiteko eta zentroko gastu kopuru bat egiteko.

Harrera

etxeak eta familiak





Arazo larriak dituzten familiei lagundu nahi

Logela goxo eta pertsonal hau harrera etxe batekoa da. Hormak hartzatxo eta pampinez bete ditu norbaitek, bere etxearen zati bat ekarri nahian; eta idoloak zintzilikatu ditu amets egiteko, agian bere etxean, bizi berri batekin.

Familian egoera larriak, gogorak bizi dituztenei eskaintzen zaie toki bat harrera familiatan eta harrera etxeetan. Jaiderritatik hasita 18 urtera bitarteko haurrak zein nerabeak izaten dira. Babesa eta maitasunaz gain, behar dutena da jakin benetan zein den euren bizi-historia, eta etorkizun hurbilean autonomo izateko pres-tatu.

Babesgabetasun egoeran dauden haurrak dira harrera etxeetan eta harrera familiatan bizi direnak. Babesgabetasun egoera epaileak deklaritzen du, eta esan nahi du haurra bere gurasoekin babes fisiko edo psikikorik gabe dagoela; esaterako, tratu txarrak (fisikoak zein emozionalak) jasan dituzten haurrak edo abusu sexualak jasan dituztenak leudeke "babesgabetasun" egoeran.

Familiatan halako egoerak detektatzeko bideak gero eta gehiago dira gizartean: zerbitzu sozialak, eskola, medikuak, gaztelekuak, aisialdi taldeak... Kasua oso larria bada eta haurra etxean arriskuan badago, lehenik eta behin egiten dena da haurra familiarengandik banatu, eta zuzenean haurraren tutoretza Foru Aldundiak hartzen du beregain.

Familiari laguntza, haurraren kargu egiteko

Familiako arazoa hain larria ez bada, alegia, "laxotasun" mailako kasua denean eta konponbiderako zirikiturik ikusten badute, orduan zerbitzu sozialak hasten dira familiarekin lanean, eta lehenik eta behin saiatzen dira gurasoen euren funtzioa bete ahal izateko errekursuak eskaintzen. Lanketa horretarako, Diputazioetik familia esku-hartzerako

programa bi daude: Gizalan eta Osatu. Gizalan da guraso gaitasunak lantzeko programa, 18 hilabetetik 2 urtera irauten duena. Osatu, berriz, gurasoen osagarri izateko programa da; gurasoak euren funtzioa betetzeko gai ez direnean, baina kaltegarriagoa izango denean haurra eurengandik bereiztea, orduan egiten dena da haurrari babes eskaini. Programa honek gurasoekin ez du lan egiten hainbeste, haurrekin baizik.

Familia esku-hartzerako programak, ordea, beti ez dute familiatan hoberanzko aldaketa lortzen; oso sustraituta dauden egoerak edo jokamoldeak izaten baitira askotan, konplexuak direnak aldatzeko. Horregatik, urteetako lanak ez baditu behar bezalako emaitzak ematen, haurra harrera etxera edo harrera familia sartzeko prozesua jartzen da martxan, Adingutxikoen Epaitegiak ematen duen foru aginduaren bidez. Gurasoek onartzen badute erabakia eta haurraren zaintza besteren eskutan jartzen badute borondatez, orduan tutoretza gurasoek mantentzen dute. Baina bestelako kasuetan, edota familiako egoera oso larria bada, tutoretza Diputazioak hartzen du eta haurraren zaintza harrera etxean edo familien eskuetan uzten du.

2002ko datuak Hegoaldean

	Harrera etxeetan	Harrera familiatan
Nafarroan	300 haur	180 haur
Bizkaian	300 haur	400 haur
Gipuzkoan	133 haur	141 haur
Arabari	100 haur	75 haur
Guztira	833 haur	796 haur



Harrera etxeak

Eguneroko bizitzan hezi



Harrera etxeak barnetik ezagutu nahi eta, Donostiara jo dugu, Intxaurrenondoko Zarategi harrera etxera. Zuzendariak, Mertxe Iturralkdek, eta hezitzaileak, Javier Sanchez, zabaldu digute atea, euren esperientziara sar gaitzen.

Zarategi harrera etxea Hijas de la Caridad mojek kudeatzen dute, Diputazioarekin duten hitzarmenaren bidetz. Mojak bertako pisu batean bizi dira. Hezitzaileak, berriz, kooperatiba batekoak dira, HezituS. Coop., hain zuzen.

Bi zentroetan, guztira 49 haurrentzako lekua dute. Zentro batean 0-9 urte bitartekoak daude, hainbat pisutan,

eta beste zentroan 18 urtera artekoak. Pisu bakoitzean 7-9 haurreko taldeak bizi dira, eta bost hezitzaile ari dira egun osoz, eta beste hezitzaile bat egun erdiz. Pisuek egongela, sukaldea, bainuak eta banakako zein binakako gelak dituzte. Oso goxoak dira, argazkietan ikus daitekeenez.

Guraso-haurrak banantzea

Harrera etxera etorri haurretik, familian gizarte laguntzaileak landu ohi dute banaketa, bai gurasoekin eta bai haurrekin. Baina Javier Sanchezek hitzetan, askotan etxetik irteera ez da modu idealean gertatzen, *“profesionalek familierengan ikusten dituzten beharrak eta hutsuneak, ez dituztelako ikusten ez gurasoek eta ezta haurrek ere”*. Horregatik beti ez da lortzen zaintzaile boluntarioa izatea. *“Eta gurasoak jarraitzen du Javierrek harrera etxean sartzearen aurka daudenean, haurrek ere aurkako jarrerarekin datoz. Gurasoekiko fidelitate sentimendua dutelako, azken batean euren gurasoak baitira, eta egoera oso gogorak bizi izanagatik etxean (kanpotik ikusita asaldatu egiten garen egoerak), hala ere, beren gurasoak dira”*.

Harrera pisuan, haurren chiko faseak

Harrera etxera etorrita, haur denek ez, baina askok fase jakin batzuk pasatzen dituzte. Mertxe Iturralkdek hala kontatu digu: *“zer gertatu zaien onartzen dutela etortzen dira asko (esanaz ‘egia da nire gurasoek hori egiten zidatela’), eta egun gutxitan dena ukatzen pasatzen dira”*. Euren gurasoak idealizatzen hasten dira, eta ondorioz, banaketaren errudunak eurak direla sentitzen dute: *“gaizki portatu naizelako nago ni he-*



G A I A

Harrera

etxeak eta familiak

G

men. Nik lehertarazi ditut gurasoak, beste modu batera jokatu izan banu ez zatekeen hau dena gertatuko”.

Halako mezu distorsionatuuekin etortzen dira asko. Horregatik, funtsezkoa da haurrokin lantzea zein den euren historia, zergatik irten diren euren etxetik. Harrera etxera sartzerako, Diputazioan bere kasua daramatenek haurrari azaltzen diote zergatik hartu duten erabakia. Eta harrera etxean pasatzen duen denboran, hezitzaileak haurrarekin barkarka lantzen du zein den bere historia. “Egia esaten diegu beti -dio Javierrek-, nahiz eta haurraren adinaren arabera eta bizi duen unearen arabera, modu batean edo bestean azaltzen diogun”. Mertxek naturaltasun handiz bizi du haurrei egia esatearena: “historia oso katastrala izanda ere, ez diezu gurasoez gaizki hitz egin beharrik; besterik gabe, ez dute hobeto egiten jakin. Gurasoek ere askotan ez baitute ikasterik izan hobeto nola egin, haiek ere beren istorio berezia izan dutelako. Gaiiaz lasai hitz egin daiteke”. Eta aurrerago gurasoek ere hitz egiten diete gauza otaz seme-alabei, euren harremanean aurrerapausoak eman ahala.

Pisuak, epe baterako bizileku

Harrera etxeak epealdi baterako bizilekuak dira. Horien funtzioa da familiak duen arazoa konpondu bitartean haurraren beharrei erantzutea, edota familiaren arazoak hobera egiten ez badu, haurraren bizileku izatea adin nagusitasuna lortu arte. Harrera etxean bizi ostean, gehiengoa bere familia itzultzen da. Beste batzuk 18 urterekin “deslaturako pisu” etara joaten dira, bizitza auto-

moa hasteko zubi direnak. Eta beste zenbaitek bizitza autonomoa hastea lortzen du inoren laguntzarik gabe.

Bistakoa da haurrentzat zer garrantzia duten gurasoek; nahiz etxean esperientzia gogorak bizi izan, haurrentzat bere gurasoak izaten jarraitzen dute. Oso figura garrantzitsuak dira. Bestetik, denborarekin haur gehienak itzultzen dira euren familia. Horregatik, proiektu berri bat jarri da martxan, haurrarekin eta familiarekin lantzekoa. Javierrek azaltzen duenez, “lehenago, harrera etxean haurra soilik lantzen genuen. Baina haur hori familia baten zati da eta familiarekin harremana du. Azkenaldian garbi dugu familiarekin ere lana egin behar dugula, bai kriterioak bateratzeko, bai haurra nola erantzuten ari den ikusteko...”. Horretarako, pisuko hezitzaileak familia bakoitzarekin koordinatzen dira, zuzenean gurasoekin hitz eginez edo familia horretan dagoen gizarte laguntzailearen bidez.

Gurasoek bisitak izaten dituzte; eta hainbat bisita mota daude, haurrentzat komeni denaren arabera (asteburu osokoa, ordu batzuetakoa...). Kasu batzuetan, gurasoekiko harremana oso mingarria denean, hezitzaileek gainbegiratutako bisitak izaten dituzte. Javierren hitzetan, “halako egoeratan guraso askorentzat etsaia zara; azkenean poliziarena egiten ari zara, harremana egokia ez dela iruditzen zaizunean esku hartu egin behar duzulako”. Mertxek ere ulertzen du gurasoen erreakzioa: “gurasoentzat oso zaila da haurraren lekuan jartzea. Askotan gurasoek ere ez baitakite zein den euren historia, eta nahikoa dute euren buruhaustearekin, gainera haurraren lekuan



Haurrek gurasoak idealizatzen dituzte eta banaketaren errudun sentitzen dira. Euren historia lantzea beharrezkoa da, eta ulertzeko ez zaie gurasoez gaizki hitz egin beharrik.

jartzeko! Zaila suertatzen zaie, gehienera gaitasun asko falta zaizkie". Baina bestetik, gurasoek beren lana eskertzen ere badakitela diote, ikusten baitute hezitzaileak 24 ordu pasatzen dituztela euren seme-alabekin, eta benetan maite dituztela.

Pisuko martxa

Pisuan hezitzaile bakoitzak erreferentziako haur bat edo bi izaten ditu (edo, bestela esanda, haur bakoitzak bere erreferentziako hezitzailea du). Hezitzaile hori da haurrari segimendu sakona egiten diona, jarraitzen duena haurraren eskolako, familiako eta aisialdiko ibilbide osoa. Neska-mutilekiko lan hezitzailea, berriz, harremanean oinarritzen da. Mertxek argi du: *"haurrekin lan egiteko lehenik behar duzu harremana sortu. Ez badira maitatuak sentitzen, ez gara benetan eurengana iritsiko"*.

Pisuan eguneroko martxa bat dago, errutina bat, laguntzen duena ohitura batzuk hartzen edo orden bat izaten. Nahiz pisuko arauak "arruntak" edo "zentzuzkoak" izan, askorentzat hasieran gogorra da horietara egokitzea. Familia oso desegituratuetatik omen datoz gehienak, eta bat-batean pasatzen dira desorduetan jaikitzen eta oheratzen, eguneko errutina guztiak ondo antolatuta dituen etxe batera.

Elkarbizitzan gatazka gehiago sortzen dira adinaren, ezaugarrien edo bizi duten unearen arabera. Baina, normalean, jada elkarrekin bizitzen denbora dezente daramaten taldeak izaten dira, eta *"azkenean, bestea den bezala onartzen dute"*, Javierren esperientziaren arabera; *"eta nahiz eta euren borrokak eta haserreak eduki, era berean identifikatuta sentitzen dira toki berean dagoen beste horrekin, egoera beretsua bizitzen ari den horrekin"*.

Zer da behar dutena

Gehien behar dutena afektibitatea da, denek ere hutsune afektiboak izan dituztelako, edo egokiak ez ziren lotura afektiboak eduki dituztelako. Javierrek hala kontatu digu: *"Arreta, kontaktu fisikoa, hori denek eskatzen dute. Batzuek*



horrelako ezer ez dutelako eduki. Hezitzaileok behar afektibo horiek ere ase behar dizkiegu. Horregatik, heziketarako gure lan tresna nagusia harremana da, eurekiko sortzen dugun lotura".

Hezitzaileek gutxi irauten

Javierrek hiru urte eta erdi daramatza lanean; hezitzaile gutxi irauten du horrenbeste: *"lan gogorra da, harremanean oinarritzen delako. Beraiekiko lotura afektiboak dituzu, oso egoera intentsoak bizitzen dituzu eta bizitakoaz libratzea kosta egiten zaizu. Hemendik irten, etxera joan eta buruak kezkatuta jarraitzen du"*. Hezitzaileek gatazkak kudeatzen jakin behar dute, etengabeak baitira.

Lan baldintzei dagokienez, nahiz hobetzen joan diren, oraindik ere ez dira samurrak. Eguneko 24 orduak bete behar direnez, asteburuetakoz zein gauetarako txandak egin behar. Sozialki lanbide honek ez du inolako aitorturik, beraz soldata ere ez dira batera onak. Horregatik guztiagatik, jendeak karrera amaitu berritan jotzen du lan honetara, hila-bete batzuetan edo asko jota urtebetean aritzeko asmoz. Lan mundura sartzeko ate bat da, baina inork ez du pentsatzen profesionalki bere azken egunak lan horretan egingo dituenik. Mertxek argi du, lan honetan jarraitzen duenak bokazioagatik egiten duela, ez behintzat soldatagatik.

Ondorioak, haurrengana

Hezitzaileek lan honetan gutxi irauten bere ondorioak ditu. Pisuetan profesionalak talde lanean jarduten dute. Hezitzaileek gutxi irauteak taldea ere esperientzia gutxikoa izatea dakar, eta beraz, hezkuntza kriterioak bateratzea ere nekezagoa izango zaie. Haurrek, gainera, erreferentez aldatzea askotan beste abandonatu bat gehiago bezala bizitzen omen dute. Javierren hitzetan, *"azkenean zugaran konfiantza jartzeko erreparoa izaten dute. Sentitzen dutena zera da: 'zertarako lotuko naiz zurekin, laster alde egingo baduzu!', azken batean beraientzat galera emozional handia baita"*.

Harrera etxeak non kokatu

Foru Aldundiak etxebizitza sozialak hautatu ohi ditu harrera etxeak jartzeko, batetik pisu handiak behar duteko izan, gela askokoak, eta bestetik merkeagoak direlako. Baina zer auzotan kokatuta dauden, eragina du. Auzo marginaletan inguruak ez du askorik laguntzen, haurroi beste aukera batzuk eskaintzea denean kontua. Hala ere, askotan herri txikietan egotea ez omen da hobea. Mertxek Segurako aterpetxea edo Fraisoro dituzte gogoan: *"aterpetxeko haurrak estigmatizatuta zeuden, herri txikietan dena nabarmentzen baita, eta gainera, karga historiko handia dutelako aterpetxeak"*.

G

G A I A

Harrera

etxeak eta familiak



Auzo berean harrera pisu bat baino gehiago egoteak ere bere ondorioak ditu. Pisu desberdinetako haurrek elkarretzeko joera izaten dute, auzoan edo koadrila desberdinetan integratu beharrean. Eskolan ere, familian arazoak dituzten haurrekin elkartzen omen dira, sentitzen dutelako besteek ezin dutela ulertu zer den eurek pasatzen ari direna.

Sarean lana

Haurra eguneroko bizitzako testuinguru guztietan integra dadin, ezinbestekoa da hainbat profesionalak sare lana egitea. Hezitzaileak, beraz, haurrekin esku hartzen duten profesional guztiekin koordinatu behar du: irakasle, mediku, begirale, psikologo eta gainerako espezialistek bateratu egin behar baitituzte irizpideak.

Gaur egun eskolak sare lanerako eta elkarlanerako mentalitate askoz handiagoa omen du lehen baino. Javierrek ondo gogoan ditu eskolarekiko lehenengo tentsiozko harreman haiek: *“edozein gurasori eskatzen ez zaizkion erantzunkizunak eskatzen zizkiguten hezitzaileoi, edo guri ezer esan gabe hartzen zituzten erabakirik handienak (ez zinen ez bere gurasoa, ez zintuztelako haur horren erreferentzetatik hartzen)”*. Haurrok bota ere, erraz botatzen omen zituzten eskolatik. Gaur egun gauzak asko aldatu dira, baina toki guztietan bezala, denetik dago. Ba omen dira bete-betean inplikatzeko diren profesionalak, beti haurarentzat egokiena zer izango den begiratzen dutenak, eta ba omen dira haurrok “enbarazutat” jotzen dituzten eskolak ere.

Bestetik, hizkuntza ereduen kontua

dago. Hala kontatu digu Javierrek: *“haur horietako gehienak ingurune erdaldunetan bizi dira, eta gainera, euskararekiko baztertze izugarria izaten dute. Euskaraz ez dute Bereduan eskolatzeko mailarik, eta A ereduak bilatu behar dizkiezu. Beraz, kasu gehienetan sare pribatura jo behar duzu. Eta eskola pribatu askorentzat, elitistak direnez, hori ‘zentroaren maila jaistea’ da, eta mota guztietako erresistentziak jartzen dizkizute. Baina tira, gure funtzioetako bat ere bada haur hori defendatzea”*.

Haur eta gaztetxoon heziketan garrantzi berezia du autonomia lantzeak, askok 18 urterekin bere bidea egin behar baitute. Gainera, bizitako esperientziagatik hutsuneak izaten dituzte hainbat abildade sozialetan zein gaitasun pertsonaletan. Beraz, kasu askotan eskola errendimendua bigarren mailakoa da, eta lehenetsia du bestelako gaitasunak lantzeak. Eskolak hori onartzen ez duenean eta alderdi akademikoaren lehenesten duenean sortzen dira arazo-

ak. Baina behin zentroak onartua duenean benetan zerk duen garrantzia, orduan prest dira sarean lan egiteko.

Hobetzeko dagoena

Azkar hobetu beharrekoa zer den galdetuta, Mertzek eta Javierrek argi dute: zentroek espezializatzen joan behar dute behar bereziak dituztenei erantzun ahal izateko. Harrera etxeetan tratamendu psikiatrikoa dutenak ere egoten dira, edo bestelako behar berezi nabarmenak dituztenak. *“Integrazioa oso polita da-dio Javierrek- baina beti ez da posible, eta beti ez da egokiena ez haur horrentzat eta ezta taldearentzat ere. Askok beste nora joanik ez dutelako daude hemen”*. Haurren ratioa jaisteko ere eskatzen dute, bosteko taldeak izan daitezela, hezitzaileak guztiengana iritsi ahal izateko. Egun 7-9 haur izaten dituzte, eta horietako batek edo bik behar berezi oso nabarmenak badituzte, arreta gehiago behar izaten dutenez, ezin iritsirik ibiltzen omen dira gainerako haurrengana.



Kristina Moreno: *“Harrera familiak argi eduki behar du haur horrek bere gurasoak dituela eta harremana behar duela”*



BEROA izena du Gipuzkoako Harrera Familien elkarteak. Bertako lehendakaria da Kristina Moreno. Autogantza da batez ere elkartearen egitea, baina kideen esperientzia duen familia batek, harreraren urteak daramatzanak, baduela zertan lagundua hasi berria den familiari. Aurreko erroka berri bat dute gainera: Gipuzkoan 14 haur dira lanaldi epean daudenak, harrera familia bat behar dutenak azkar. Familia eredu hau gizartearen zabal dedin egingo dute lan.

Zein familia mota izan daitezke harrera familia?

Denak izan daitezke harrera familia. Baina gako garrantzitsu batzuk badira. Familiako kide guztiek (erabakitzeke gaitasuna dutenek) ados egon behar dute harrerarekin. Bestalde, hobe da familia horrek seme-alaba propioak edukitzea; batetik haurrak hobeto integratzen direlako haurrak dauden etxetara, eta bestetik gurasoek esperientziak errazago egingo diotelako aurre hainbat arazorri.

Zer adineko haurrak nahi izaten dituzte harrera familiek?

Normalean 6 urtez beherako haurrak eskatzen dituzte, errazago egokitzen baitira familia berrira. Hala ere, jasotzen dituzten gero eta gurasobakar gehiago dago (emakume zein gizonak), eta horiek nahiago izaten dituzte handixeagoak, autonomoagoak direnak. Bestetik, zailagoa da 8-12 urtekoak harrera etxetik irtezea, bertan egonkortuak egoten direlako eta ez dutelako familia berri batera irten nahi izaten.

Zein da jasotzeko prozesua?

Lehenik familiak harrera egiteko eskaini behar du bere burua Gurutze Gorrian. Bertan oinarritzko ikastaro bat egiten dute, 8 ordukoa. Ikastaroaren helburua da autoaukeraketa egitea. Alegia, hasieran harreraren irudi idealizatua izan dezakezu, eta beraz, beste familien esperientziak entzun eta gero erabakitzen da: “ur handiak dira niretzat” edo “bai, prest nago”.

Ikastaroa eginda, egokitzen jotzen bazaituzte (hori Foru Aldundiak erabakitzen du), urtebete edo urte erdi itxaron beharko duzu, ikusi behar dutelako haur bakoitzari zein familia izango zaion egokiena. Haurra bilatzean kontratu bat egiten da, eta lege mailan haurraren zaintza ematen dizute. Harrera-kontratuak inoiz ez du izango guraso aginterik.

Familia biologikoarekiko harremanak nolakoak izan behar du?

Familia biologikoek bisitak dituzte, eta derrigorrezkoa da horiek errespetatzea. Harreraren bada gauza bat oso argi eduki behar duzuna, eta adopzioarengandik bereizten duena: haur horrek bere gurasoak dituela eta beraiekiko

harremana funtsezkoa dela.

Haurrak sekula ez du pentsatuko, inolaz ere, "ni hemen nago gurasoek min egin didatelako", eta ez dute ulertuko zergatik banatu dituzten (ez bada benetan zerbait oso nabarmena). Oinarritzkoa da harrera familiek errespetua izatea familia biologikoari. Gainera, jakizu zergatik iritsi diren mutur horretara. Azkenean sorgin gurpil bat da; mina jasotakoak dira gaur mina eragiten dutenak. Kasu askotan gurasoek ez dute jakin nola zaindu, eurek ere umetan ez baitute sentitu zaindu dituztenik. Zaintzea ere ikasi egiten den zerbait baita, eta ez "berezkoa".

Harrera familien erdia "familia zabalak" dira, alegia, haurren osaba-izebak edo aitona-amonak. Zer berezitasun dute horiek?


Batetik, familia zabalak hobeak dira haurrarentzat, ez delako bere sustraizatit banantzen, eta beraz askoz hobeto integratzen delako. Baina bestetik, familian egonda aita-amak errazago sartzten dira eta arazo gehiago sortzen dituzte, aitona-amonei kosta egiten baitzaie euren seme-alabei mugak jartzea.

Familia gutxi dira anaia-arrebak hartu nahi dituztenak. Halako kasuetan zer egin daiteke?

Bada formula bat, Galizian eta Madrilen aspalditik zerabiltena eta orain hemen hasi direna praktikan jartzen: herri berean jartzen dituzte anaia-arrebak, elkar ezagutzen duten bi familietan. Eta harremana mantentzea derigorrezkoa da, asteroko bisitak daude. Eredu hori oso ondo ari da funtzionatzen.

Nolako da familia barruan haurraren prozesua?

Hasierako fasean haurrak ongi kausitu nahi du, eta behar den guztia egiten saiatzen da. Behin konfiantza dagoenean eta haurra seguru sentitzen hasten denean, orduan hasten da barruan duen guztia deskargatzen, eta krisiak sortzen dira. Argi eduki arazo oso larriez ari garela: abusu sexualak, tratu



Eskoletan ikastaroak

BEROA elkarteak eskoletan ikastaroak eskaintzen ditu. Ipuin bidez haurrei azaltzen diete harrera familiek zer diren, beste eredu bat bezala onar dezaten, naturaltasunez. Irakasleekin, berriez, prebentzio lana egiten dute.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailatan ematen dituzte ikastaroak, euskaraz zein gaztelaniaz.

txarrak... Eta gauza horiek denek atera egin behar dute. Gero jada fase egonkorrago batera pasatu ohi dira.

Haurrok, orokorrean, kontzentratzeko arazoak izaten dituzte, nahasteak oso arruntak dira. Izan ere, asko kostatzen zaie euren baitara biltzea eta euren bizitzari buruz pentsatzen jartzea (hain gaizki pasa dute-eta); beraz, nahiago dute erreparatu ondokoa zertan ari den, euren buruari buruz pentsatu baino.

Harrera familiek jasotzen al dute inolako laguntzarik?

Bai, familia guztiek psikologoekin segimendua egiten dute. Eta haurrak arazo larriren bat badu, psikiatra talde zabal bat ere eskura dugu, eskatu orduko hartzen gaituena. Laguntza ekonomikoa ere jasotzen dugu, haurraren mantenu gastuetarako. Eskola beka ere badute.

Harrera familien berezko helburua da haurra jatorrizko familiara

itultzea; baina oso kasu gutxitan gertatzen da hori. Beraz, 18 urte betetzear, zer?

18 urte betetzear jada adin nagusikoa bihurtzen da, eta harrera bukatu egiten da. Arazoa da, gizarte hau ez dagoela prestatua 18 urteko gazteak bizitza autonomoa egiten hasteko. Ezagutzen ditugun kasu guztietan, behin 18 urte beteta, ere harrera familiek gazteon sustengua izaten jarraitzen du.

Euskal Herrian haur asko daude harrera familiek behar dituztenak. Ez badira familiek ateratzen, zer egin?

Frantzia bada eredu bat, "familia profesionalak" izenekoa. Harrera familiariko guraso bati (normalean ama izaten da) egun erdiko lana ordaindu egiten dio estatuak, gizartearen aldeko lan bat egiten ari delako. Jakina, baldintza horietan harrera familia asko irtetzen da. Euskal Herrian ere halako ereduren bat beharko dugu.

G A I A
Harrera
etxeak eta familiak

G

marta marffe

CTERA Argentinako Hezkuntzako
sindikatu



Egungo arazo nagusia pobrezia
da; hezetasuna bezalakoa da eta
hezkuntza osoan sartu da



Desnutrizioaren zigorra jasaten ari gara. Desnutrizioa jasan eta bizirik ateratzen diren haurrak arrastoekin geldituko dira, fisikoak eta mentalak, eta inoiz ez dute edukiko ondo elikatutako haur batek ikasteko duen gaitasun bera.

Eta hori gaur egungo Argentinako eskola jasaten ari da.

Argentina herrialde eredu-garria izan zen psikologian, psikanalisian eta hezkuntza arloan orain dela hamarkada batzuk. Frankismoaren garaian jende ugari joaten zen hara, hermen ez zeuden argitalpenen bila. Gaur egun gauzak aldatuta daude, Argentina ez da lehen izan zen herrialde hura. Egoera soziala eta ekonomikoa guztiz desberdinak dira, okerreara egin dute, eta horrek eraginar du arlo guztietan; baita hezkuntzan ere.

CTERA Confederación de Trabajadores de la Educación de la República de Argentina irakasleen sindikatuak 30 urte bete ditu. CTA Central de Trabajadores Argentinos-en barnuan kokatzen da organikoki beste arloetako sindikatuekin batera, eta bera da handiena. Aldi berean, CTERAren barnuan Argentinako probintzia guztietako sindikatuak daude afiliatuta, maila nazionalerako erakunde indartsua bilakatzen delarik horrela. Maila guztietako irakasleak, eta zentro publiko nahiz pribatukoak biltzen ditu. Guztira 720.000 irakasle daude gaur egun Argentinan, eta horietatik ia 300.000 afiliatuak dira.

Marta Marfpei da egun CTERAko idazkari nagusia eta Jorge Cardelli Zuzendaritzako kide eta sindikatuaren EMI Prestakuntza Eskolako zuzendari da. Biekin solastu gara Argentinako hezkuntzaren egoeraz ikasurte berria hasi duten honetan, eta Hector Carrica CTA sindikatu orokorreko kideak ere ekarpen interesgarriak egin ditu.

Zein da memento honetan Argentinaren egoera ikuspegi orokor batetik begiratuta?

Herrialde hau beldurtuta dago Diktadura militarrek jendea hil zuten, baina erradikalak gelditu ziren eta aurrera jarraitu zuten. 1989an, ostera, Menemekin neoliberalismoa ezarri zen eta agintariak dena saldu zuten, dena eraitsi zuten, enpresak itxi, inportazioak ireki... eta ezer gabe gelditu ginen. Neoliberalismoak eraldatu egin du, eta gustatu edo ez, hau beste herrialde bat da orain. Lehen langabekiazirik ez zegoen, eta gaur egun zazpi milioi pertsona dago lan arazoez. 2.300.000 pertsoneri 50 dolar ematen dizkiete lanik ez dutelako. Lehen ez zegoen horrelako pobreziazirik. Pobrezia hori maila guztietan sartzen joan da, gizarteko hainbat saretan; eta horietako bat eskola da.

Hiru modutara sartu da pobrezia eskolan: pobrezia irakasleentzat soldata baxuengatik; pobrezia ikasleentzat oso behartsuak direlako; eta pobrezia eskolan, eraikinak, materiala, liburuak, teknologia berriak... eskasak direlako.

Pobrezia al da Argentinako hezkuntzak duen arazo nagusia?

Bai, hala da. Pobrezia hezetasuna bezalakoa da eta hezkuntza osoan sartu da. Pobrezia eskoletan sartu da, irakasleetan sartu da eta ikasleetan sartu da. Oinarriko saskia (jatekoa soilik) 350 peso (150 euro) kostatzen da, eta saski osatuago bat (zerbitzuak barne dituen) 650 peso (230 euro). Hori diru asko da kobratzen den soldatarekin alderatuta, eta beraz, egoera oso ahula da. Ondorioz, hezkuntzak duen arazorik larriena pobrezia da, hezetasuna bezalakoa delako.

Zer ondorio ekarri ditu horrek?

Alde batetik, hezkuntzaren okertzea. Eta bestetik, bi zirkuitu nabarmendu ditu: batetik, ikasle

oso pobreek, asko jota, Bigarren Hezkuntza baino gehiago ez dute jarraitzen; eta bestetik eskola ez hain behartsuetako ikasleak (asko zentro pribatuetaoak edo erdialdeko zonaldekoak eta profesionalen seme-alabak) eskola ertainera iristen dira eta baita unibertsitatera ere. Beraz, bi zirkuitu sortu dira eta gero eta definituago daude. Zentzu horretan, eskola publikoa pobrezia gehiago jasaten duen sektorearentzat gelditu da.

Egoera hori bizitzen ari gara gaur egun, eta ez dirudi epe laburrean aldatuko denik, nahiz eta Nestor Kirchner lehendakari berria ona izan eta gauza interesgarriak egin. Izan ere, gauza batzuk egiturakoak dira eta ezin dira lau hitzekin soluzionatu. Ahalegin handia eskatzen dute, inbertsio handia, eta gizartea beste modu batera egituratzea: soldata egoera hobetuz, familiaren bizitza hobetuz... Pentsa, haur bat ez da eskolan soilik hezten, etxean ere bai. Etxean egiten dira etxerako lanak, espektatibak etxean sortzen eta bizitzen dira... etxea osagarria da. Jendea animatuta dagoenean ilusioa sortzen da, baina langabezia egoeran jendea eta giroa ahuldu egiten da eta horrek eragina du eskolan.

Egoera horretan, eskolan elikadura sartu da. 4,5 orduetatik zati bat jateko erabiltzen da.

Desberdintasun sozialaren planifikazioaren ondorioz, genozidio bat egon dela esaten dugu. Norbait planifikatu zuten hau. Boteredunek dute gertatzen denaren erantzukizuna. Zergatik ez da aberastasuna zuzen banatzen? Herrialde honetan dagoen aberastasuna gaitzesgarria da.

Askotariko aberastasuna duen herrialdea da Argentina, eta urtero 5 urtez azpiko 12.570 haur hiltzen dira gosez. Desnutrizioaren zigorra da. Eta hiltzen ez diren haurrek ez dute gaitasun kognitiborik edukiko. Hau da, desnutrizioa jasan eta bizi-



rik ateratzen diren haurrak arrastoekin geldituko dira, fisikoak eta mentalak, eta inoiz ez dute edukiko ondo elikatutako haur batek ikasteko duen gaitasun bera. Eta hori gaur egungo Argentinako eskola jasaten ari da.

Eta egoera hedatu egiten da. Irakasleek ere gaixotasunarekin elkarbizi behar dute. Haurrak gaixorik bizi dira, eta irakasleek 30-40 haurrekin egon behar dute, eta egoera horretan.

Pobreziaz eta gosez gain, nolakoa da ikasleen eskolatzetasa eta maila?

Eskolatzetasa altua da. Lehen Hezkuntzan %90etik gora da eskolatzetasa, eta %60k amaitzen du. Gehienak Bigarren Hezkuntzan jarraitzen dute, baina gutxiak lortzen dute bukatzea; gutxi gorabehera hiru argentinarretatik batek du Bigarren Hezkuntza bukatuta. Bigarren Hezkuntzan errepikapena eta desertzioa arazo handiak dira. %20k baino ez du bukatzen. Probintzia batzuetan derrigorrezkoa da Bigarren Hezkuntza, eta beste batzuetan ez.

Langabezia dauden familientzat lan planak daude eta horrekin zera lortu nahi dute: gurasoei lana ematea eta seme-alabak eskolara bidaltzea. Baina denek ez dute hori egiten. Eskolak legitimitatea galdu du. Sektore umil batzuetan orain dela 10 urte seme-alabak eskolara bidaltzeko zeukaten desesperaziorik ez dute orain. Izan ere, zer esti-

Bigarren Hezkuntzako krisia handia da. Ikasleek pentsatzen edo sentitzen dute eskolan irakasten denak oso zerikusigutxi daukala beraien kaleko bizitzarekin, eta ondorioz, motibazioa ahulduta dago.

Gremio entitate bezala ikusten duguna zera da: arazo sozial, ekonomiko eta politikoa edukitzeaz gain, kulturala ere badaukagula: dependentziaren, etsipenaren, kode onarpenaren... kultura. Horren aurrean, hezkuntzatik eta kulturatik etikaren eta balioen printzipioak baieztatu behar ditugu.

mulu daukate ikasleek gero lanik ez dutela edukiko baldin badakite?

Bestalde, analfabetismoa igo-tzen ari da helduen kasuan.

Zenbat urtekoa da derrigorrezko eskolatzea eta nolako antolaketa dago ordutegi aldetik?

Haurrak 5 urterekin eskolatzen dira eta urtebeteko Hasierako Maila egiten dute. Gero Lehen Hezkuntza dator, eta hori desberdina da probintzien arabera. Izan ere, 1992an Lege Orokorra egin zen, eta horrek aldaketak ekarri zituen. Kontua da, lege hori ez dagoela probintzia guztietan aplikatua; orduan, probintzia batzuetan eredu zaharrarekin jarraitzen dute, eta beste batzuetan berriarekin.

Beraz, eredu zaharra duten lekuetan, Lehen Hezkuntza 7 urtekoa da, eta gero beste 5 urte Bigarren Hezkuntza. Lege Orokorra aplikatzen den tokietan, bestalde, Lehen Hezkuntza 9 urtekoa da, eta Bigarren Hezkuntza 3koa. Beraz, derrigorrezko eskolatzea 12 urtekoa da denetan; baina batzuetan 7+5, eta bestetan 9+3.

Bigarren Hezkuntza bukatu ostean, batzuk unibertsitatera joaten dira eta beste batzuk lanera.

Haurrak ez dira egun osoan egoten eskolan, egun erdiz baizik. Horrela, eskoletan goizeko eta arratsaldeko txandak egoten dira.

1992ko Lege Orokorra leku batzuetan aplikatzeak eta beste batzuetan ez aplikatzeak zer ondorio ekarri ditu? Lege berria aurrekoa baino hobea dela irizten al duzue?

Printzipioz zerbait berria egiteko zen, baina ez da hala izan. Ez du inoiz funtzionatu. Zergatik? Egin zen legea ez zelako bestea baino goragokoa, jendearen aldaketa ekarri zuelako, curriculumak eta edukiak berrantolatzea ekarri zuelako, soldata baxuekin, baldintza ekonomiko txarrekin... eta hori

dena zentzu argirik gabe.

Guri egokiagoa iruditzen zaigu 7+5 eredu. Alde batetik, ez zaigu egokia iruditzen 7 urteko haurrak eta 14-15 urtekoak batera egotea. Eta bestetik, Bigarren Hezkuntza ahuldu egiten du 9+3 izateak, 5 urtetik 3ra pasatzen baita. Gure ustez gazteen hezkuntzak garrantzi handia dauka eta garrantzi handiko arazo politikoa da une honetan. Bigarren Hezkuntzak jendea lan mundurako prestatzeko izan beharko luke, eta une honetan ez da hala. Berez, Bigarren Hezkuntzak hiru ardatz dituela esaten da: lehen-tasuna izan behar duela, hiritarrak prestatu behar dituela eta lanerako prestatu behar dituela. Baina historikoki ez du horrelakorik egitea lortu, eta lan mundura orde unibertsitatera soilik bideratu ditu ikasleak.

Eskola publikoak eta pribatuak. Nolako da bien arteko balantza?

Bien arteko proportzioa desberdina da probintziaren arabera. Orokorrean % 70 publikoa da, eta Buenos Aires hiriburuan erdi eta erdi. Unibertsitate indartsuena publikoa da eta baita kalitate handienekoa ere. Neoliberalismoak, banku mundialak eta nazioarteko finantza erakundeek unibertsitate publikoak arantzelak kobratu zituzten bultzatu zuten, baina erresistentziari esker, dohainik mantentzea lortu zen, graduondokoak izan ezik.

Nolako da sare bakoitzaren egoera?

Orokorrean desberdintasun handia dago bitartekoen aldetik. Pribatuek atzerriko hizkuntzen ikasketak eskaintzen dituzte, familia baldintzak hobekia dira, harrera baldintzak jartzen dituzte... Baina desberdintasun handiena bitartekoetan dago. Eskola publikoetan testu libururik ez dute, materialik ez dute, ordenagailurik ere ez edo gutxi... Pribatuan, ordea, denek dute



ordena-
gailua esko-
lan, eta etxean ere bai.

Irakasleen kasuan, ez dago desberdintasun handirik publikoko eta pribatuetakoen artean. Hala ere, pribatuetakoak talde homogeneoagoak dira eta baldintza hobekak dituzte.

Ratioei dagokienez, eskola publikoan 40-45 ikasle daude gelako. Eskola publikoetako Bigarren Hezkuntzan ikasle talde heterogeneoagoekin aurkitzen dira irakasleak. Maila horretan egoera larriagoa da, hor ikusten baita alderdi pedagogikoko edo didaktikoko krisia. Ikasleek ez dute eskolara joan nahi, ikasten dutenak ez die ezertarako balioko ez dutelako lanik izango... Zuek daukazuen arazo bera da, baina pobrezia okertuta edo lazuta. Bigarren Hezkuntzako krisia handia da. Ikasleek pentsatzen edo sentitzen dute eskolan irakasten denak oso zerikusi gutxi daukala beraien kaleko bizitzarekin edo errealitatearekin, eta ondorioz, motibazioa ahulduta dago. Lehen, gutxienez unibertsitatera joateko edo lan bat bilatzeko balio zuela usate zen, baina orain hori ere ahuldu egin da, lanik ez baita bermatzen.

Eskola publikoek eta pribatuek jasotzen duten laguntza ekonomiko instituzionala berdina al da?

Eskola pribatuek estatu probintzialen aldetik diru laguntza jasotzen dute irakasleen soldatak ordaintzeko. Eta soldata horiek esko-

la publi-
koko irakas-
leen berdina dira.

Laguntza hori izan liteke irakasleen soldataren % 100, % 80 edo % 60. Hori zentroak bere ikasleei ordaintzen dien kuotaren arabera erabakitzen da. Hau da, kuota oso baxua kobratzen baldin badiete edo kuotarik ez baldin badaukate, estatuek irakasleen soldataren % 100 ordaintzen diete. Kuota ertaina baldin bada, % 80 jasotzen dute. Eta altua baldin bada, % 60. Kuotatik kobratzen dutenarekin alokairua, altzariak, telefonoa, argia... ordaintzen dute, soldata ez den beste guztia.

Buenos Airesen kuotak altuak dira, baina barnealdean eta hegoaldean ez, hor oso baxuak dira. Adibidez, hegoaldean eskola asko erlijiosoak dira, eta horiek egongo ez balira, ez litzateke eskolarik egongo. Horregatik, % 100eko diru laguntza jasotzen dute eta publikotzat hartzen dira, hots, estatuak diru lagundutako eskola publikoak. Berez, eskola pribatuetatik % 3 soilik dira pribatu pribatuak.

Nolakoa da irakasleen egoera?

Lehiaketa baten bitartez sartzen da lanera, eta horrekin lana eta egonkortasuna lortzen dira. Bitartekoak eta ordezkapenak ere badaude, baina orokorrean egonkortasuna dago. Behin sartu ondoren, inork ez zaitu gogaitzen.

Lehen Hezkuntzan gehiengo emakumeak dira, % 80, eta nahiko

gaizki ordaindutako lana da. 4 edo 4,5 ordu pasatzen dituzte haurren aurrean, eta prestaketa, zuzenketak eta gainerako lanak etxean egin behar izaten dira, ordu horiek ez dira kontabilizatzen. Soldata 150 eurokoa da, Buenos Aireseko apartamentu baten alokairua adinakoa. Beraz, irakasle batek bi haur baldin baditu eta senarrak ez baldin badu, bi txanda egin behar ditu lan, hots, zortzi ordu haurren aurrean. Eta hori erokeria da, zeren, horrez gain, zuzenketak, lanaren prestaketa... bere kabuz egin behar ditu. Herri txiki bateko irakasle batek ez zuen libururik erosten ez zeukalako horretarako dirurik. Herri txikietan lan egiten duten irakasle batzuk auto-stop egiten dute eskolara joateko, ez dutelako dirurik taxia ordaintzeko.

Bigarren Hezkuntzan katedra-
ren sistema dago. Soldata bikoitza dute, baina soldata duin bat edukitzeko katedra ordu asko behar dira. Katedra ordua ikasleen aurrean pasatzen den denbora da. 350 euro irabazteko 40-45 katedra ordu egin behar dira, hots, 9 katedra ordu eguneko. Beraz, 45 katedra ordu = 180 ikasle asteko. Astakeria izugarria da.

Beraz, gaizki ordainduko lanbi-
dea da, baina erakargarritasuna egonkortasunean dauka.





Erresistentzia lana egiten dugu hezkuntzaren pribatizaziari aurre egiteko. Norberaren garapen ekonomikoaz gain, ez dira alboratu behar garapen soziala, kulturala, etikoa eta familiarra. Horretan eragin nahi dugu, baina guk bakarrik ezingo dugu lortu, beste aldaketa sozialak ere gertatu behar dira.

CTERAK 30 urteko ibilbidea egin du hezkuntzako sindikatu nazional bezala. Nolakoa antolaketa duzue?

Egitura nazionala du, hau da, hezkuntzako sindikatu probintzialak biltzen dituen sindikatu nazionala da. Herrialdeko probintzia guztietako sindikatuak daude bere barruan, hots, 23 probintzietakoak eta Ciudad Capitalekoak. Maila eta zentro mota guztietako irakasleak biltzen ditu. Guztira 720.000 irakasle daude gaur egun Argentinan eta horietatik 300.000 afiliatuak dira.

CTERaren ildo nagusiak orokorrak dira, baina gero, bere barruko sindikatu bakoitzak bere gobernu probintzialarekin borrokatu behar du. Izan ere, gobernu probintzialak dauzkate hezkuntza eskumen nagusiak, eta ez gobernu zentralak. Gaur egun hezkuntza sistemaren ezaugarrietako bat atomizazioa eta desberdintasun ikaragarria dira, eta horrek zaildu egiten du gauzak orokortzea. Egoera oso konplexua da, baina guk batasun nazionala mantentzea lortu dugu.

Zer lorpen eskuratu dira 30 urtetan?

Besteak beste, lan egonkortasuna lortu da, izugarri kostatzen bazen ere.

Lehen, Hezkuntza nazionala zen eta gobernu zentralaren eskutanzegoen, eta gero, probintzietara pasa zen, baina aurrekonturik gabe. Horrela, probintzien artean soldata desberdinak, egoera desberdinak, aurrekontu desberdinak...

sortu ziren. Borroka nazionalaren eta batasun nazionalaren ohitura geneukan, eta aldaketa horrek borroka hori zatitu egin zuen. Nahiko gaizki pasa genuen, geldialdi asko eginez. 1988an Marcha Blanca egin genuen, Menem etorri aurretik. Hasiaren 45 eguneko geldialdia egin genuen, eta gero bi asteko martxa. Txoko guztietatik abiatu zen jendea eta bi asteren buruan 100.000 irakasletik gora bildu ginen Buenos Aireseko 9 de julio etorbidean. Eskola komunitate osoak parte hartu zuen, gurasoek ere harrera ona egiten zigutelarik pasatzen ginen tokietan animoak emanez. Sekulakoa izan zen, eta oso garrantzitsua. CTERari bultzada ematen lagunduzion. Denok ezkertiarak izan arren, ikuspegi askotarikoak zeuden, eta martxaren ondoren ikuspegi nazionala eta herritarra indartu zen. Ondorioz, erakundea eraldatzen lagundu zigun.

1996-97an karpa zuria muntatu genuen Buenos Airesen, kongresuaren aurrean, eta hiru urte inguru egon ginen gure aldarrikapenak defendatzen.

Gaur egun, zein dira CTERaren aldarrikapen eta egiteko nagusiak? Zein dira oinarri filosofikoak?

Gremio entitate bezala, ikusten duguna zera da: arazo sozial, ekonomiko eta politikoa edukitzeaz gain, kulturala ere badaukagula: dependentziaren kultura, etsipenaren kultura, ezinezkoaren kultura, kode horien onarpenaren kultura... Gi-

zarteak ez du ezer abiatzen kode horien kontra, ez dago kontsentsu sozialik, eta hori da sustraiko arazo. Horren aurrean, hezkuntzatik eta kulturatik guk baieztatu egin behar dugu etikaren eta balioen printzipioetan, horiek izan baitziren gure herrialdearen sorrerako printzipioak. Gu ez ginen herrialde ustela. Etika, balioak eta eraldatzeko eta garatzeko borondatea genituen, herrialde produzitzailea ginen... eta hezkuntzak rol garrantzitsua jokatu zuen.

Modu batean, hezkuntza publikoa eskubide sozial bezala eta garapen pertsonal eta sozial bezala berreskuratu behar dugu. Hezkuntza publikoa berreskuratu behar da, hezkuntzak jokatzeko duen rol politikoa eta heziketa prozesuaren neutraltasun ezaz kontziente izanik. Irakasleen artean pedagogiak betetzen duen rol politikoaz eta ezagutzaren prozesuaren kontzientzia berreskuratu behar da. Urte asko daramagu irakasleen prestakuntzan lan egiten rol etikoaren garrantziaz jabe daitezen. Noski, prozesu kritikoa eta konstruktiboa garatu nahi dugu, baina abiapuntu bezala etika batek bideratuta.

Erresistentzia lana egiten dugu hezkuntzaren pribatizazioari aurre egiteko. Pribatizazio hori balio batzuek bultzatzen dute eta balio horiek hezkuntza merkantzia bilakatzeko dute, eta gainera, merkantzia abalorikoa. Hau da, hezkuntza norberaren garapen ekonomikorako ezagutza batzuetaz jabetzea ahalbidetzen duen merkantzia da, baina ez norberaren garapen sozial, kulturak, etiko eta familiarerako. Alderdi hori alboratu egiten da.

Hezkuntza instrumental eta kultura hegemoniko horren erdian, guk hezkuntza eredu horri aurre egiten diogu irakasleei begirako lanarekin. Eskolatik, pertsonak aldatzen lagunduko dugu herrialdea alda dadin, baina beste aldaketa sozialak lortzen ez badira, guk baka-

rik ez dugu egingo dena. Eskolak espazio bat dauka, eta eragiteko posibilitate handia du aldeko markeko sozio-ekonomiko-politikoan; kontrako baldintzetan, berriz, eskolak erresistentzia lana egiten du.

Irakasleak kontziente al dira egoera eralda dezaketela?

Horretan dihardugu. Irakasleak jada kontzientzia hori edukiko balute, ez genuke arazo kulturalik izango. Arazo kulturala daukagu, ordea, irakasleak urratzearen, ustelkeriaren, onarpenaren... kode horien guztien kultura prestatuta daudelako. Irakasleak gizaratean bizi dira, errealitatean, eta erasotuak dira.

Orduan, guk uste dugu sektore batzuek kontzientzia berri bat eta prozesu etiko berri bat eratzeko joera izan dezaketela. Pentsatzen dugu irakasleek beraiekin lan egin daitekeen sektore bat osatzen dutela, eta horretan ari gara urte askotan.

CTERekin batera 30 urte borrokan daramaten irakasleek aurrera jarraitzeko kemenik ba al dute?

Diktadura militarri eutsi gendion, lankideen desagerpenari ere

bai, Menemismoari ere bai... eta erresistentzia horretatik guztitik, borondate oneko ikuspegitik begiratuta, esan liteke mantendu direla lanpostu publikoa, prezio publikoa, finantziario nazionala, sistema publikoaren doakotasuna... Baina langile baten ikuspegitik galdu besterik ez dugu egin: soldata galdu, eskubideak galdu, lana zaildu da ikasleak gosez, jarrera arazorekin, indarkeriaz.. etortzen direlako eta abar.

Ez diogu egun bati eutsi, 30 urteri baizik, eta lankideak nekatuta daude. Utzi egin dute borroka, eta ez gremio borroka soilik, baita borroka soziala eta gelatako borroka ere. Hasierako pasioa eta kemena galdu egin dituzte.

Menemismoarekin irakasleak eta ikasleak desmobilizatu egin ziren. Denbora horretan irakasleek higadura bat jasan dute. Higadura horrekin, irakasleek gero eta heterogeneoagoak diren gelei egin behar diete aurre, eta jubilatzeke gogoz daude. Horrez gain, laboralki, kualifikatu egin beharrean, deskualifikatzerajo da, eta gauza askoren erantzule egin dira.

Zer sumatzen da irakasle berriengan?



Guk
hezkuntza proiektu
berreraikitzailea
nahi dugu, ikuspegi
nazionalagoa eta
herrikoiagoa duen
hezkuntza
proposamena
egitea.
Herrikoiarekin esan
nahi dugu parte-
hartzailleagoa,
dialogikoagoa.



Ez dira hainbeste inplikatzen. Irakasle ikasketak egin zituzten lana izateagatik, ez bokazioz edo egiturazko aldaketa egiteko gogoatik.

Ikuspegi erabilgarria da nagusi, batez ere hiriburuetan, kompetentzia dela-eta. Horrek desnaturalizatu egiten du lana.

Irakasleak ez du gizarteko legitimitaterik galdu, nahiz eta orain dela 40 urte irakasle baten prestigioa handiagoa zen. Edonola ere, oraindik orain, Argentinan eskola publikoa da indar gehien duen instituzioa, eliza, komunikabideak eta epaitegiak baino gehiago. Baina prestigio horrekin ez gara konformatzen, gure haurrek ez badute jaten.

Esan al liteke CTAre barruan CTERA eredugarria denik?

Argentinako historiako memento ilunenetan eta zailenetan, une batean ohorearen garaia izan zen eta Maiatzeko Amek sinbolizatu zuten. Estatuaren terrorismoak isilarazitako herrialdean giza eskubideen defentsa gidatu zuten. Demokrazia errekuperatzen hasi zenean, paradigma bat sortu zen, eta CTERAk jarraitu zuen antolaketa izugarria izan zen: Martxa Zuriak izugarritzko garrantzia izan zuen,

Karpa Zuriaren arima... Menemen garaian eskola komunitate osoa inplikatu zen: irakasleak, gurasoak, ikasleak... eta hori oso garrantzitsua izan zen.

CTERAK gizarte egoerari aurre hartu zion eta salaketa indartsu bat sortu zuen salaketa existitzen ez zen garaian. Onarpenaren garaia zen eta CTERAK bandera etiko eta sozial bat altxatu zuen. Eutsi egin genion, salatu egin genuen, eta konzientzia sortu. Eta inoiz ez genuen bakarrik egin, beti komunitatearekin: gurasoekin...

Nolako harremana du CTERAK gobernu berriarekin?

Guk beti eduki dugu autonomia harremana alderdi politikoekin eta horregatik iraun dugu hainbeste urte. Autonomia horrekin, gobernu batzuekin harreman hobea eduki dugu beste batzuekin baino. Azken urteetan gobernuen joera izan da hezkuntzaren komertzializazio moduak bilatzea gastuak gutxitzeko eta kanpo zorra ordaintzeko, munduko bankuak eta fondo monetarioak presionatuta. Beraz, tentsio eta presio handiko garaiak izan dira.

Memento honetako Hezkuntza ministro Daniel Filmus pedagogoa da eta hori ona da. Hemen badugu esatera bat: erratz berriak ongi garbitzen du. Oraingoz ongi errazten ari da. Ministroak hezkuntza publikoaren ikuskera aldatu nahi du eta irakasleen etsaia ez denez, hori ona da. Hezkuntzari buruzko eztabaida bideratuko duen leku edo aukera bat bilatu nahi du, hor akordio batzuk hartzeko arrazoizko epe batean hezkuntzaren hobekuntza posible izan dadin. Zentzu horretan, hezkuntzaren hobekuntza bilatzen du. Dena dela, hobekuntza horretan gurekin ere kontatu behar du, aldaketak irakasleen ahaleginaren kontura ez egiteko, irakasleekin baizik.

Horrez gain, badaki probintziekin ere akordioak egin behar ditue-

la, eskumen asko haien esku baitaude.

Zein bide daude aldaketak edo hobekuntzak irakasleekin egiteko? Hots, nola bermatzen da irakasleen iritzia kontuan hartzea?

Gidaritza Organoa delakoa dago. Hezkuntza sistemaren orientabideen eta akordio orokorren gunea da eta probintzia guztietako Hezkuntza ministroek osatua dago. Hor hartzen dira adostasunak eta akordioak, probintzien arteko desberdintasunak gutxitzen joateko.

Gero, Aholkularitza Pedagogikoko Batzorde bat dago, eta Gidaritza Organoaren eta CTERaren arteko harremana bideratzen duen bide instituzional bat da. Batzorde federala da eta eskualde bakoitzeko ordezkari bat egoten da (Argentina bost eskualdetan banatuta dago). Orain arte espazio formala izan da eta lortu diren akordioak hain intentsitate baxukoak izan dira, non ez duten lortu hezkuntzaren ardatza inorantz mugitzerik. Orain, Hezkuntza ministroak esan du pauso bat emateko erabakia hartu duela batzorde horretan garrantzi handiko gauzak soluziona daitezkeen eta akordioak bete daitezkeen. Proposamenak dira, ez dakigu beteko diren edo ez, baina guregatik bai. Gu joango gara eta lan egingo dugu.

Zer egin dezake gobernu berriak, zer esperantza duzue?

Asmo onak dituela dirudi, baina gobernu nazionalak ez dauka margen handirik gauzak egiteko, probintzien eskuetan dagoelako hezkuntza. Sektore batzuk, eskola pribatuak kasu, nahiago dute politika nazionalik ez egotea. Izan ere, gobernu probintzialen laguntza jasotzen dute beraien hezkuntza politika aurrera eramateko eta horretan jarraitu nahi dute. Zentzu horretan, gobernu nazionalak zailtasunak di-

tu, eta guk ere bai, erakunde nazionala baikara.

Eraldaketei begira jarrita, zeri ematen dio lehentasuna CTE-RAK?

Guk hezkuntza proiektu berre-raikitzailea nahi dugu, ikuspegi nazionalagoa edo herrikoiaagoa duen hezkuntza proposamena egitea. Herrikoiaagoarekin esan nahi dugu parte-hartzaileagoa, dialogikoaagoa. Eta zentzu horretara bideratu nahi dugu eskola, gauza txikiak eginez eta bidea argituz.

Orokorrean instituzio guztiak sakonean demokratizatu behar dira ikusten dugu. Bigarren Hezkuntzan ikasleek parte hartu behar dute euren ikasketen diseinuan eta diziplinan, goi mailako ikasketetan ikasleek botua eman behar dute, eztabaidatu, aukeratu... Hori da planteamendua. Eta horrek konpromiso indartsua eskatzen du gobernuaren aldetik. Ez da hitzaldiekin lortzen, urteetako lana eta inbertsioa eskatzen du. Eta dirua daukatenean, eman egin behar dute.

Zein dira Lehen Hezkuntzan ikusten dituzuen lehentasunak?

Eskolak indartzea. Horrek esan nahi du eskolaren barruan eztabaidatzeko, planifikatzeko, diseinatzeko eta taldean lana egiteko espazioak egotea. Uste dugu Lehen Hezkuntzako irakaskuntza ez dela gelan bukatzen. Gela partziala dela

uste dugu, eta horrez gain etxerako lanekin, ikasleei bizitza antolatzen lagunduz... lan egin behar dela. Ikasleek kanpoan ere ikasten dute. Horregatik, Lehen Hezkuntzak hazi egin behar du antolaketa aldetik, komunitatean gehiago sartu behar du, irakasleek aukera gehiago eduki behar dute planifikatzeko eta diseinatzeko, argitaletxei hain lotuta egon gabe, lagundu egin behar zaie teknologia berriekin, testuekin eta abar autonomia eduki dezaten beren lana diseinatzeko.


Bigarren Hezkuntzari dagokionez, zer proposatzen duzue?

Gauza bera pentsatzen dugu, baina zera gehituz: gazteria identitate bezala ikusaraztea, gizarteko sektore protagonista bezala ikustea, gazteria present egotea. Ez da eskolara eramatea eta kito. Eskolak protagonista egin behar ditu, beraien garatzeko, antolatzeko eta espazio pertsonal propioa izateko. Gizaki osoa da, integrala, eta ez zaio ezer falta bizitzan eragina izateko.

Unibertsitatearen kasuan, zer?

Gehiago konprometitu behar du errealtateko arazoekin. Ez du zerbitzuak komertzializatzeraz mugatu behar, alderantziz baizik, herrialdeko beharretara egokitutako ikasketak sortu behar ditu, eta eza gutza zientifikoa herriaren eskuetan egon dadin saiatu behar du.





Bazen behin...

gure aitona-amonen kontu aberatsak

“Ni Pepi naiz eta nire bizitza kontatuko dut. Ni baserri batean bizi nintzen. Han ez geneukan dutxarrik, denak gela berdinan egiten genun lo, negu hotzetan sutondoan egoten ginen. Egunero animaliak mendira eramaten genitun eta han pasatzen genun goiza. Hori bai, 4 urtetatik 8 urtetara ikastolara joaten ginen, ikastolan ez genuen euskaraz hitz egiten eta zerbait gaizki egiten genuenean jo egiten gintuzten zuzenkiarekin”. (...)

“Orain duela asko, Leo udan zegoenez, bere lagun bateri deitu eta jolastera joan ziren. Baina Gameboy, telebista ikustea, bideo jokuetara jolastea, etb. ez, garai haietan ez zeudelako, orduan mendian saltoka jolasten ziren”. (...)

“Bazen behin aita bat, ama bat eta bost haur. Bi bakarrik eskolara joaten ziren, beste hiruak lanera aitarekin. Egun batean, Santanderrera abiatu ziren txalupa batekin, aitona bisitatzerako. Ez ziren behartsu behartsuak. Orduan, gerrak harrapatu zituen”. (...)

“Bazen behin Martina izeneko amona bat, hura nire amona zen. Zumarragan bizi zen eta 7 seme-alaba bizi ziren, aitona Euxebio istripu baten ondorioz hil zen eta seme-alabek ez zuten ezagutu. Lau haize izeneko baserri batetan bizi ziren, aitona Euxebio hilzetenetik baratza guztia deseinduta zegoen, orduan Martinari baratzen haziak sartzea bururatu zitzaion. Porruak, azenarriak, tomateak, letxugak... eta gauza gehiago ere. Eta horrela probetxua ateratzeko”. (...)

www.bazenbehin.net web orrian topa daitezkeen ipuinetako batzuk dira horiek. Baina gehiago ere irakur daitezke. Ikaztegieta, Legorreta, Asteasu, Irun eta Hendaiako haurrek idatzitako ipuinak dira, eta euren aitona-amonen kontuetan inspiratu dira ipuinak asmatzeko.

Ez dira hasi besterik gabe ipuinak idazten, ordea. Ez. Horretara bultzatu dituztenak irakasleak eta, bereziki, **Bazen behin** proiektuaren arduradun diren Rafa Buitron eta Enara Garcia izan dira. Biak Hezi-Zerb elkarteko kideak dira eta euren ardura izan da herri ho-

rietako eskoletan **Bazen behin** proiektua aurrera eramatea. *“Bi hitzetan adierazteko, belaunaldien arteko lotura eta komunikazioa berreskuratzea da proiektuaren xedeetako bat. Eta beste bat, aurrekoen berri jakitea, pertsona izanez norbere nortasuna sendotzeko”. Asmo potoloak dirudite, baina bideratzeko modu erraza, atsegina eta erakargarria aurkitu diote.*

Pausoz pauso

Asteasuko, Ikaztegieta eta Legorretako herri eskoletan eta Irungo eskola batean aritu dira 11-12 urteko ikasleekin. Lehen saioan, aurkezpen lanak egin ondoren, orain dela 50-100 urteko zer gauza dakizkiten galdetzen diete ikasleei. Behin hausnarketa horrekin hasita, bigarren saioan herriko adineko

pertsona bat eramaten dute bere bizi-penak, herriak jasandako aldaketak, esperientziak eta abar kontatzera. Ikasleek aurretik prestatutako galderak egin ohi dizkiete eta kontu bitxi asko ezagutzeko parada izaten dute. Hurrengo urratsa euren aitona-amonari edo adineko pertsona bati elkarrizketa egitea izaten da. Horretarako, ikasle bakoitzari grabagailua eta zinta banatzen dizkiete eta astebeteko epea ematen zaie grabaketa egiteko. Horrela, hirugarren saioan elkarrizketak jasotzearekin batera, bakoitzak bizitutakoa kontatzen du: zer gauza berri jakin dituzten, zerk harritu dituen... Seme-alaba ugari izateak asko harritzen ditu haurrak gaur egun: *“Nire amonak 10 haur izan zituen!”*, dio batek, *“eta nireak 14!”* gehitzen du besteak. *“Udan espartine-*

Bazen behin proiektuaren helburuetako bat belaualdien arteko lotura eta komunikazioa berreskuratzea da, hots, aurrekoen berri jakitea norberak bere nortasuna sendotzeko.

kin ibiltzen zirela kontatu zidan amonak eta arraroa egiten zait". Laugarren saioan, ipuin bat idazten dute elkarrizketatuak eta gelara etorritako adinekoak kontatutako gauzetan oinarrituta.

Material hori guztia bildu eta web orri batean jartzen dute Rafak eta Enarak, eta festa bat prestatzen dute hori guztia azaltzeko, bai ikasleentzat, eta baita elkarrizketatuentzat eta gurasoentzat ere. "Ikaztegieta, adibidez, jende asko bildu zen, eta interes handiz ikusi zuten web orriaren agertzen dena. Gainera, haur bakoitzari CD bat ematen diogu, horrela etxean ere ikusteko" dio Rafak.



Web orrian, ikasle bakoitzaren eta haren elkarrizketatuaren argazkiaren azpian, elkarrizketaren transkripzioa eta ipuina irakur daitezke. Transkripzioak hitzez hitz jasotzen dira, mintzatu bezala, eta kontuak... denetik irakur daiteke, Enarak adierazten duenez. "Irunen muga zeharkatzearekin erlaxionatutako kontuak ugari dira: kontrabandoa, gerratik ihes egitea... Estatu espainiarretik bizitzera etorritako etorkinak ere asko dira... Ikaztegieta, Asteasun eta Legorretan, aldiz, baserriko bizimoduari lotutako kontuak dira ohikoenak: zer lan egiten zituzten, nola joaten ziren eskolara, azokak, festak...".

Eta hala bazan

Enara eta Rafa gustura daude lortutako emaitzarekin. "Alde batetik, web orria gustatu zaie eta oso kontent daude, hori nabarmena da" dio Rafak. "Eta bestetik, ez da ikusten, baina era berean oso garrantzitsua da: egindako lanak balio izan die lotura sortu edo sendotu dutelako, eta zenbait bere nortasunaren alderdi batzuen jatorriaz ohartu delako. Esate baterako, neska bat oso perfekzionista zen, eta ardurata zegoen horrekin. Orain, ordea, bere amona ere horrelakoa zela konturatu da, eta lasaitu egin da".

Ikastetxeetan ere gustura daude egindako lanarekin. Josune Eizmendi Asteasuko Pello Errota eskolako zuzendariak hala dio: "Guk aurretik ere egiten genuen lan hau. Bi urtez behin Hizkuntzan testuak lantzen di-



tugu. 1. eta 2. zikloetan autobiografia lantzen dugu eta 3. zikloan biografia. Orduan, beti abiatzen gara aitona-amonei edo adinean aurrera doan norbaiti elkarrizketa eginez. Elkarrizketa horiekin txosten bat egiten dugu eta eskolako liburutegian daude orain arte egindako bostak."

Dena dela, aurtengo berrikuntza web orriarena izan da. "Orain arte egiten genuenaren antzekoa egin dugu, baina Interneten jartzeko aukera eman digu eta horrekin gehiago zabaldu dugu" dio Josunek.

Aurrekoen bizimodua ezagutzea eta jasotzea interesgarria dela uste dute eskolako irakasleek, galtzen ari den bizimodu baten testigantza jasotzen baitute. Orain, noraino lortzen da belaualdien arteko lotura edo transmisioa? Josunek dioenez, "zaila da epe motzera ikustea. Orain dela urte batzuk egin zutenei galdetu beharko litzaieke. Lan honen bitartez beharbada bestela ukituko ez lituzketen gai batzuk ezagutuko dituzte, baina orain azkarregi da hori baloratzeko. Orain datuekin galditzen dira, baina gerora gauza gehiagorekin gogoratuko direla espero dugu". Bien bitartean, gazetxoak motibata ikusten dira. Gustura prestatzen dituzte galderak eta elkarrizketak egin ere bai. Gero, paperera pasatzea eta ipuina asmatzea, zuzentzea, txukuntzea... nekosoagoa egiten zaie. Eta aitona-amonei dagokienez ere, pozik ikusten dira, batez ere berriak direnak eta hizketarako prest daudenak. "Haurrak pozik ikusten baditugu, gu ere bai" diote irribarrez. ●



Ingurumen hezkuntza XXI. mendeko moda ala erronka?

Sukarrieta Taldea

Aspalditxo honetan, Ingurumen Hezkuntzarekin lotutako hainbat eta hainbat ekimenez inguratuta gaude. Zenbait eskola, enpresa, udal eta bestelako erakunde ingurumenaren zainketaren aldeko egunak, irteerak, jardunaldiak, ekipamenduak eta abar antolatzen ari dira, eta gizartearen aldetik harrera ona ziurtatuta izaten dute. Batzuetan, propaganda kutsua ere izaten dute eta antolatzaileei prestigioa erateko ekitaldi itxura hartzen dute.

Zer ote da bada, beste moda bat?, entzuten da horrelakoe-tan kalean.

Gizartearen aldetik ere gero eta hedatuago dago, itxuraz behintzat, ingurumenaren bilakaera azken mendeotan ez dela bide onenetik joan, mendebaldeko garapen ereduak eragin zuzena daukala bilakaera horretan eta gure eguneroko bizimoduan ohikoak ditugun jarduera batzuk behintzat, neurri-

ren batean, aldatu beharko ditugula, ingurumenaren alde egin nahi baldin badugu.

Nazioartean ere onarpen zabala dauka jadanik **Garapen iraunkorraren** beharrak. Kontzeptu hori aurreko mendeko 60ko hamarkadan sortu bazen ere, 1987an hedatu zen, Brundtland txostenak bere interpretazioa ezagutzera eman zuenean: “*Garapen iraunkorra garaiko belaunaldiaren beharrak asetzen dituen garapena da, hurrengo belaunaldien beharrak asetzeko ahalmena murriztu gabe*”. Kontzeptu horrek zehaztasun eza handia badu ere, ezaugarri hauetan oinarritzen den filosofia bat bultzatzen du:

- Natur baliabideak kontserbatu beharra dago.

- Mugagabeko hazkundera ezinezko bihurtzen duten muga fisikoak daude.

- Beharrezkoa dena helburu sozialen lorpena da eta ez helburu indibidualena.

- Belaunaldi barruko eta belaunaldien arteko elkartzasuna ezinbestekoa da.

Eta horren alde egiteko, beste hainbat eragileren artean, Ingurumen Hezkuntza agertzen zaigu protagonismo nagusiarekin. Bere azken xedea inguruan sortutako ingurumen arazoei aurre egiteko estrategia bat garatzea da. Izan ere, 1972an Stockholmeko NBERen Konferentzian Giza Ingurumenaz esandakoari jarraituz, “*ezinbestekoa*

da gazteei zein nagusiei zuzendutako hezkuntza lana egitea ingurumen arloan, pribilegio gutxien dituen biztanleen sektoreari behar besteko arreta emateko, ondo informaturiko iritzipublikoaren oinarriak zabaltzeko eta norbanako, enpresa zein kolektibitateen jokabide arduratsua bultzatzeko ingurua babesteko eta hobetzeko, haren gizatasun neurri osoan”.

Bide beretik doaz, besteak beste, Belgradeko Nazioarteko Mintegian (1975), Tblisiko Gobernuen arteko Konferentzian (1977) eta Rio de Janeiroko Lurraren Goi Bileran nahiz Foro Globalean (1992) egindako adierazpenak, baita geroago sortutakoak ere, hala nola Salonikako Ingurumen eta Gizarteari buruzko Nazioarteko Konferentziakoak (1997) eta Johannesburgen izan zen Garapen Iraunkorrerako Munduko Goi Bilerakoak (2002).

Esandakoaren ildotik, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza etorkizunerako hezkuntza da, aldaketa sozialak ulertzeko eta haien aurrean erantzuteko ahalmenak garatzen dituen, eta etorkizunari buruz erasormentsuan eta kritikoan pentsatzen irakasten duena. Kontzeptu dinamikoa da, hezkuntzari buruzko ikuspegi berria bultzatzen du eta adin guztietako pertsonak hezten ditu etorkizun jasangarria sortzeko.

Ikusten dugunez, azken urteotan Ingurumen Hezkuntzari buruzko oinarri teorikoa garatu eta sendotu da. Adostasun batzuk daude bere zerga-


tien eta zertarakoen gainean, baina ez zaio pareko arretarik eskaini egiteko erari. Nola egin Ingurumen Hezkuntza? Ekimen bat abian jartzerakoan edo programa bat diseinatzerakoan, zeren araberakin hezitzailea eta benetan ingurumenaren aldekoa ote den? Zein irizpiderekin neurtu eman daitezkeen arrerapenak? Ez al da egia "hezkuntzak" "ingurumenak" baino pisu txikiagoa izaten duela Ingurumen Hezkuntzako programetan?... Eskola, kultur etxe, nekazaritza eskola eta abarretan martxan jartzen diren programak beti al dira hezitzaileak? Globalizazioa, Garapen Iraunkorra edo birziklapena gai izanik antolatzen diren ekimenak, sentsibilizazio kanpainak edo egun bereziak beti al dira ingurumenaren aldekoak? Zein eratarazuzenduko daiteke jendearengana Ingurumen Hezkuntza programa bat, hezitzaile izan nahi baldin badu?...

Zeri buruz hezi?

Ingurumen Hezkuntza hiru jarduerara maila hauetan jorratzen da: "Ingurumenean bertan", "Inguruneari buruz" eta "Ingurumenean alde". Horrez gain, bere lan eremua ezin da mugatu naturaren alderdi fisiko/naturalak soilik aztertzerara. Ingurunea konplexua den neurrian, kontuan izan behar da faktore ugariaren eragina (ekonomikoak, kulturalak, soziopolitikoak...) eta horien arteko harremanak.

Klima aldaketa, ozono geruzaren suntsipena, nekazaritzako lurren galera, basamortuen hedapena, basoen hondamendia, bioaniztasun galera, ozeanoen kutsadura, hondakin kantitate handien pilaketa eta -arazo haiekin lotuta- baliabideen agorpena dira, besteak beste, gaur egun munduak dituen ingurumen arazo larrienak. Haiekin batera, gizarte arazoak ere agertzen dira: aberats eta txiroen arteko polarizazio gero eta handiagoa, gudak eta beraien ondorioak, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko erlazio desorekatua... Horrek guztiak berez erantzuten dio "zergatik egin Ingurumen Hezkuntza?" galderari.

Arazoen zerrenda ikusita, argi dago



badagoela nondik heldu Ingurumen Hezkuntzari. Izan ere, ia-ia edozein gai har dezakegu aitzakiazat programa baten diseinuan. Mementoak, kokapenak, interesak, parte-hartzaileen adina, prestakuntza, baliabideak, gertaera hurbilak eta abarrekoak izango dira, beraz, gaiaren egokitasuna markatuko dutenak, baina betiere kontuan izanik ez gaudela elkarrekin lotu gabeko arazo multzo baten aurrean, arazo sistemiko handi baten aurrean baizik. Beraz, egiten diren planteamenduetan, arazoen ondorio negatiboetara mugatu beharrean, arazoen jatorrian jarri beharko da arreta berezia, hau da, onura eta zerbitzuen produkzio, erabilpen eta kontsumo sisteman, iraultza industrialarekin jaio zenean eta gaur egun nagusitzen denean, Lurraren Goi Bileraren inguruan sortutako Brundtland txostenak eta Agenda 21 delakoak aldarrikatzen duten bezala. Bestetik, Ingurumen Hezkuntzaren azken helburua arazoak konpontzeko erabakiak hartzea eta ekimena bultzatzea bada ere, ezin da lortu, aurretik betetzen ez badira problematikarekiko sentsibilizazio, ezaguera eta kontzientzia hartzearekin lotutako helburuak. Beraz, lau fase hauek izan behar dira kontuan:

- **Sentsibilizazioa:** arazo batera hurbildu eta jakin-mina sortzea haren inguruan.

- **Ezaguera:** arazo hori ulertzeko behar diren ezaguera eskuratzea.

- **Kontzientzia hartzea:** hezten ari dena arazoaren barruan dagoela kon-

turatzea.

- **Ekimena:** hezten ari denari aurrerak eskaintzea, ekimene bidez arazoen konponketan parte har dezan.

Nola hezi?

Gure ustez, galdera honen erantzuna aurrekoarekin koherentzia bilatzean aurkitu ahal da. Ingurumen Hezkuntzako Euskadiko III. Jardunaldietan

Garapen Jasangarrirako Hezkuntza etorkizuneko hezkuntza da, aldaketa sozialak ulertzeko eta haien aurrean erantzuteko ahalmenak garatzen dituen.



(Donostia, 2002) Daniella Tilbury-k zioenari jarraituz, garapen iraunkorra soilik lortuko da ikaste prozesu bezala ulertzen baldin bada eta, horrela, berebiziko garrantzia du *nola* eta *zer* ikasi kontzeptuak bat etortzeak.

Ingurumen Hezkuntzak aspaldi egin zuen ihes transmisio eruedetatik eta ezaguera konplexuaren eraikuntzaren parte-hartzean konprometituta dago. Konstruktibismoak dioenez, ikastea pentsamendua eraikitzea da. Horretarako, ikasitakoak esanguratsua, hau da, zentzuzkoa izan behar du. Lehendik ikasitakoarekin lotu eta beste esparru batzuetara aplikagarria izan behar du. Hori lortzeko ezinbestekoa da ikaslearen aurretiazko ideietatik abiatzea, ezaguera berriak eraiki eta gaitasunak garatzeko, betiere haren garapen-zona hurbilaren barruan. Ikas-kuntzak ikaslearen autonomia bultzatu-ikasten ikastea, alegia- eta ikaslea bere ikaste prozesuez jabetzea lortu behar du. Barne prozesu sendo baten bidetik, ikaslea bera izango da bere garapenaren autoerregulatzailerak -jarrerak barne-, prozesuko une guztietan jakingo du non dagoen eta nora doan erabakitzeke ahalmena izango du.

Egungo zenbait kanpaina, iragarki edo ekimenetan planteamendu konduktista hutsak antzematen dira. Gehienek azturak aldatzea dute helburu eta batzuk, gainera, pertsonengan sortzen duten beldurrean daude oinarrituta. Horrelako ekimenei, nahiz eta egoera konkretu batzuetan eraginkorrak izan daitezkeen, indar hezitzaile pobrea dute eta, ingurumenaren alde egitearen aldetik ere, zalantzazkoak dira. Izan ere, ingurumena aldatzeko, etorkizuna erabaki nahi dutenengandik beren borondatean gerta daitezke-

en aldaketen gaineko iritzirik kritikoa izatea espero dezakegu eta ez mezu-hartzaile hutsak izatera mugatzea, nahiz eta mezuak ingurumenaren aldekoak izan.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar azturak behin eta berriro errepikatzen ditugun ohiturez osatuta daudela, baina horien aldaketa norberaren borondateatik datorrela hein batean, eta hor arrazoiak garrantzi handia duela. Konstruktibismoak arlo horretan jartzen du arreta berezia. Hain zuzen ere, ikaspen berriak aurretiazko ideien eta ideia berrien artean sortzen den gatazka kognitiboaren emaitza direla dio, eta aurrerapausoak aldaketan aurrerapen edo abantailaren bat ikusten baldin bada soilik gertatzen dira.

Aipatutako ideia pedagogikoen lurrtzea proposamen metodologiko hauetan gauzatzen da, besteak beste: aurretiazko ideiak ikertzeko probak, ikasitakoa adierazteko eduki sareak, berdinen arteko ikasketa, talde lana, el-karkidetzak, aniztasuna, hezkidetzak eta ludikotasuna kontuan hartzen dituzten estrategiak, errealitate hurbilarekin elkarrekin jarraitzeko irteerak, parte-hartzea garatzeko jarduerak...

Nola ebaluatu?

Edozein Ingurumen Hezkuntza programak ebaluazioa beharko du bere eraginkortasuna ezagutzeko, betiere ebaluazio prozesuaren hobekuntzara-

ko tresna bezala ulertuta. Baina ebaluazioak zentzua izango du programa diseinatzen den momentotik bertatik kontuan izan eta jaso baldin bada. Ikuspegi jakin batetik pentsatutako programak beren jatorriarekin eta prozesuarekin zerikusia ez duten beste batzuetatik ebaluatzeak ezer gutxi eranstean dio programari berari.


Bestetik, ebaluazio sistemaren emankortasuna ebaluazioak berak heziketa prozesuari ematen dion bultzadaren indarrean neurtuko da. Ildo horretatik, ebaluazioa aberasgarria izango da bi helburu hauek betetzen dituen heinean:

- Heziketa prozesua piztu, suspertu eta -beharrezkoa denean- zuzendu.
- Heziketa prozesuaz jabetuz hezten ari denaren ikaspen metakognitibo erdietsi.

Era horretan ulertutako ebaluazioak, etengabeko feedbackaren eraginez, hezten ari denaren barne prozesuarekiko inplikazioa eta ardura izatea erraztuko ditu eta, bestetik, heziketa prozesuan emango diren aldaketen "autoerregulazioa" ekarriko du.

Ebaluazio eredu honek Ingurumen Hezkuntza programa osoa blaituko du. Beraz, ebaluazio sistema diseinatzekoan edozein irakaste-ikaste prozesutan ematen diren hiru fase nagusiak izango ditu kontuan: hasierako diagnostikoa, prozesu fasea eta fase batukorra.





- Hasi- erako diagnostikoa-

ren helburuak motibazioa, sentsibilizazioa eta landuko den problematikaren aurkezpena dira. Ebaluazioari dagokionez, heziko direnek landuko den gaiari buruz dituzten usteak eta aurretiazko ideiak ikertu beharko dira. Horrela soilik jakin daitezke zein diren heziketarako abiapuntua eta ikaste prozesuan daudenen "garapen hurbileko zona".

- **Prozesu fasean** helburu nagusiak ezaguera, kontzientzia hartzea eta planifikatutako jardueren garapena izaten dira. Ebaluazioari dagokionez, oso garrantzitsua izango da hezkuntza programan parte hartuko duten guztien arteko helburuen adostasuna eta irudikapena, ekimenaren aitzinapena eta planifikazioa eta prozesuan egingo den ebaluazio irizpideak ere adostea (Zer egingo dugu? Nola egingo dugu? Zertarako?). Esandako guztia hasieran egitea komeni bada ere, prozesu osoan zehar txertatu beharko dira hausnarketa uneak, behar izanez gero prozesuak eskatuko lituzkeen norabide aldaketak burutu ahal izateko.

- **Fase batukorraren** helburu nagusia programatutako heziketa prozesuan izandako aurrerapenak baieztatzea da. Fase honetan berebiziko garrantzia dute konpromisoak, jarrera hartzeak eta ikasitakoaren komunikazioak. Ebaluazioaren aldetik, haien azterketak emango dizkigu argibide esanguratsuenak.

Ingurumen Hezkuntza programaren jarduera multzoa gurpil baten moduan ikusiko bagenu, esandako meka-

nis- moak gurpilaren

erradioak izango lirateke, gurpila bera helburuen ardatzarekin lotuko luketenak. Gurpila eta ardatzaren arteko lotura sendoa izanez gero, ez da orekarik galduko eta heziketa prozesuak hobeto egingo du aurrera.

Bestalde, zer esanik ez ebaluazio sistema honek bere baitan izan behar dituela programan parte hartzen duten eragile guztiak: hezitzaileak, hezten direnak, planifikatutako programa bera, baliabideak...

Zertarako?

Artikuluaren hasieran egungo ingurumen problematika zehaztu dugunean, geure burua lehenaren eta orainaren ondorioetan kokatu dugun moduan, orain geroan kokatu behar dugu. Etorkizunaren balizko eszenatokitian pentsatuz, jar ditzagun aurrez aurre egungo gizartearen bilakaerarekin itxaron dezakeguna eta guk nahiko genukeena. Ingurumen Hezkuntzaren azken xedea eta XXI. mendeko erronka espero dezakegun eszenatokia nahi dugunera hurbiltzea izango da.

Adierazi dugunak lotura handiagoa dauka Garapen Iraunkorra ulertzeko era berriekin, ekologia edo zientziarekin baino. Garapen Iraunkorrak zientziak, politika eta ekonomia biltzen ditu, kultura berri bat osatuz. Gizakiak munduarekin dituen harremanak sumatzeko eta balioesteko modua dira bere arreta gune nagusiak, eta horregatik eskatzen du orain arte gure pentsaera eta ekimena bultzatu dituen eredu mentalari buruzko hausnarketa kriti-

koa, bere osotasunean. Hori guztia da UNESCOk izendatu duen Ingurumen Hezkuntzarako Hamarkadan (2005-2015) sendotu nahi dena.

Une honetan, Ingurumen Hezkuntzak Garapen Iraunkorrarekin estutu behar ditu harremanak. Hezkuntza honek gure ulertzeko eta pentsatzeko erari buruzko hausnarketa bultzatu behar du, eta neurri berean gure jokatzeko era. Hots, hezitzailea den praktika bultzatu behar du eta ez irakatsi soilik egiten duena. Horrela lortuko da Ingurumen Hezkuntzaren funtsezko betebeharrak: gaur egun nahiz etorkizunean suerta daitezkeen ingurumen arazoei aurre egiteko irtenbideak asmatzeko ahalmena duten pertsonak heztea, eta ezerrezetak aplikatu besterik egingo ez dutenak. •

BIBLIOGRAFIA

- MAYER, M.: "Ingurumen Hezkuntzarako erronka berriak", in CE-NEAM karpeta, 2003ko otsaila (2001), Madril.

- NOVO, M.: *Educación ambiental. Bases éticas, conceptuales y metodológicas*, Universitas, Madril, 1998.

- SUKARRIETA TALDEA: *Aurretiazko Ideiak eta Ingurugiro-Hezkuntza*, BBK Fundazioa/Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila, Bilbo, 1998.

- SUKARRIETA TALDEA. "Ebaluazio eredu bat aniztasunari ekiteko" in *Hik Hasi*, 78 (2003).

- TILBURY, D.: "Ingurumen Hezkuntza Johannesburgo-2002 ostean". Ingurumen Hezkuntzako Eusko III. Jardunaldiak (2002). Hitzaldia. Donostia.





Modenako (Italia) 0-6 urteko udal haur eskolak European eredu



Italiako Emilia Romagna deritzan lurraldea mundu guztian ezaguna da eskaintzen dituen haur eskola ereduak direla eta. Duela bost urte Hik Hasiko zenbait kide Modena eta Reggio Emilia herrietan izan ziren bertako haur eskolak ezagutzen.

Haren 0-3 urte bitarteko zikloa arautzen ari den honetan, duela 34 urte sortu eta ongi funtzionatzen ari den Modenako eskolan berriro ere bisitan izan gara, eta udarako gurera ekarriko ditugu, V. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoetara. Zuzenean, euren esperientziaren nondik-norakoak kontatuko dizkigute.

Haur eskolak bi zikloz (0-3 eta 3-6) osatuta baldin badaude ere, oraingo honetan lehenengoan jarririk dugu arreta berezia. Behar bada, azken urteotan hainbat ikuspegi, zalantza eta jarrera sortu dituelako gure artean.

Ahalegin honen helburua beste lurraldeetan ongi erantzuten duten ereduak ekartzea da, aukera desberdinak praktikan nola bideratzen diren ezagutzea, eta guretzat zer izan litekeen baliagarri aztertzekeko posibilitatea izatea.

Ezkerretik eskuinera eta goitik behera hasita, Fiorella, Paola eta Francesca pedagogoak eta hezitzaileak. Horietako batzuk gurekin izango dira Udako Topaketetan.

Lan egiteko modua eta antolaketa

Modenako udalak konpromiso handia du hezkuntzarekin. Sorreratik etengabe hobetzen aritu da eta hango eskolak, gaur egun, eredu bihurtu dira European txikien hezkuntzan interesa duen edonorentzat.

Modenan badaude haur eskola estatutalak eta baita pribatuak ere, baina udalarenak dira antolaketa, pedagogia eta lan egiteko moduagatik herritarrentzat erreferentzia direnak.

Une honetan, 20 zentro, dozena bat pedagogo, ehunka hezitzaile eta abar kudeatzen ditu. Hala ere, zentro bakoitzak bere izaera propioa du, eta berezko hezkuntza proiektua garatzen du, auzotarren ezaugarriak kontuan hartuz eta bertako beharretara egokituz.

Heziketa integrala eta konstruktibista

Nagusiki, Gardner-en eta Bruner-en teorian eta esperientzietan oinarritzen dira. Haurren adimen mota desberdinak hartzen dituzte kontuan heziketa integrala jaso dezaten.

Pertzepzioaren heziketa asko lan-tzen dute, eta ikasleek, euren beharretatik abiatuz hainbat lan proposamen egiten dituzte.

Garrantzitsuak da esperientziak, errealitatea, beharrak eta emozioak bizitzea, eta horren ondorioz, hausnarketa egitea, era eta euskarri anitzetan egin daitekeelarik.

Haurren arteko elkarreragina errazten da, eta aipatzekoa da harremanetan sentitzen den errespetua eta elkarbizitzarako giro lasaia.

Langile guztiak dira hezitzaile

Pedagogo, garbitzaile, irakasle, sukaldari, harrerako edota mantenuko izan, denak hartzen dira hezitzaileztat, eta hortik abiatuta jokatzten dute.

Hezitzaile prestatuak

Etengabeko formazioan oinarritzen dira. Proposamen berriak etengabe diseinatzen, esperimentatzen eta ebaluatzen ari dira; behaketa eta haurren urratsen kontrol lanek dedikazio handia dutelarik.

Irakasleen arteko komunikazioa lantzen da, eta osotasunaren ikuspegia guztien artean eraikitzen dute.

Espazioaren eta denboraren antolaketa

Aurreko guztia aurrera eraman ahal izateko, beharrezkoa da espazioaren eta denboraren antolaketa egokia. Haurren beharrei egokitutako espazioak lortzeari berebiziko garrantzia ematen diote, horrek eroso eta gustura egoteko duen eraginagatik.

Ikasleen eta gurasoen harrerako begirunea

Haurren eskolatzea mimo handiz lantzen dute. Udako oporretan gurasoak eta haurrak elkarrekin eskolatzen

hasten dira: espazioa ezagutzen, bertako funtzionamenduz jabetzen, gurasoak dagokien prestakuntza jasotzen... denak eskola komunitateko partaide sentitzen.

Gurasoen parte-hartzea

Familien zeregina eta protagonismoa eskolako ezaugarri nagusietakoa da. Eskolan egiten denak jarraipena behar du eta horretarako gurasoak proiektuetan sartuta egotea oso garrantzitsua da.

Ikasleek euren identitatea lantzea helburu

Hezitzaileek edota ikasleek proposatzen dituzten proiektuak lantzen dituzte, helburuak, kompetenziak eta identitatea kontuan hartzen direlarik.

Haur bakoitza haur historikotzat hartzen dute.

Udalaren kontzientzia

Modenako udalarentzat garrantzitsua da haurrek sormena lantzea, euren artean komunikazioa erraztea, talde lanak bultzatzea eta herria ezagutzea. Horretarako, herritar orok erabil ditzakeen herri mailako zerbitzuak dituzte: irteera gidatuak prestatzen dituen zerbitzua, "memo" deritzan zerbitzu anitzeko zentroa, eta beste hainbat zerbitzu, denak herritar guztientzat irekiak.





Artearen txokoa: euskal gizartearen eboluzioa ikuspegi eta garai desberdinen arabera ikastaroa

A. Arteta eta V. Amezttoi: euskal gizartearen eboluzioa ikuspegi eta garai desberdinen arabera ikastaroa

Iazko topaketetan Artearen txokoa estreinatu genuen eta urtero-urtero arteari buruzko ikastaro bat eskainiko da txoko horren barruan. Jorge Oteizari buruzko ikastaroarekin abiatu ginen, eta aurten beste proposamen erakargarri eta berri batekin gatzoz: *Aurelio Arteta eta Vicente Amezttoi: euskal gizartearen eboluzioa ikuspegi eta garai desberdinen arabera*. Arteak adierazten duena irakaskuntzan hainbat arlo ikasteko oso erabilgarria dela erakustera dator.

Historian zehar artea betidanik gizartearen zutabe nagusietako bat izan da; garaiko gizartearen izaera soziala eta ekonomikoa azaltzeaz gain, bere sinismenak adierazteko harraminta bezala erabilia izan baita. Honen lekuko dugu artearen hastapenetan kobazulotetan topatu izan den labar-pintura edota Greziar zein Erromatar garaiko arte espresioetan aurki ditzakegun garaiko gizartearen ezaugarri ekonomikoaren zein gizarte beraren egiturari buruzko deskribapenak.

Artearen gizartearekiko izaera "deskriptiboa" historian zehar mantendu izan da hainbat herrialdetako adierazpen artistiko anitzetan; pinturan, eskulturan, grabatuan eta abarretan, alegia. Eta askotan, izaera deskribatzaile hori heziketarako tresnatzat hartua izan da; adibidez, Erdi Aroko arte-diziplina anitzetan, esaterako,

elizetan dauden erretaulatan. Guztiok dakigun bezala, artelan horien garaiko gizartearen gehiengoan analfabetoa zenez, irudi horiek herri xumeari Historia Sakratuaren hainbat gertakari aditzera emateko erabiliak ziren.

Ikastaro honetan, artearen historian betidanik agerian izan den artearen izaera didaktikoa azpimarratu nahi da eta, aldi berean, ezaugarri hori eskolako curriculumeko arlo eta eduki multzo zehatzetan nola txertatu aztertu nahi da. Horretarako, euskal artea abiapuntu izanik, euskal gizarteak XIX. mendean geroztik XX. mendera bitartean jasan izan duen bilakaera ikusi ahal izango da. Analisi hori euskal artearen historian ezagunak ditugun bi pintoreren (Aurelio Arteta, 1879-1940 eta Vicente Amezttoi, 1946-2001) artelanen analisiaren bitartez eta beraiek bizi izandako garaia azterketaren bitartez burutuko da.

Helburuak

Artea baliabidetzat harturik, euskal gizartearen eboluzioa ikusteko bidea irekiko duen ikastaro honekin hainbat helburu lortu nahi dira:

- Euskal gizartearen bilakaera aztertea.
- Bilakaera hori islatu duten bi euskal artisten artelanen ezaugarri estetikokoak eta teknikoak ezagutzeko eta aztertea bere testuinguru historiko, ekonomiko eta sozialean.
- Artelanen balio didaktikoa agerian jartzea, gizarte batean gertatzen diren

aldaketa historikoak aditzera emateko harraminta baliagarria izanik.

- Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako eskolako curriculumeko hainbat arlo lantzeko artelanak baliagarriak direla ikustea.

- Curriculumarekin erlazioa izango duen jardura didaktiko zehatza burutzea.

- Artelanen analisia trebatzea.

Metodologia

Ikastaroaren lehenengo egunean, aipatutako artista bakoitzaren artelanak eta garaiko testuingurua aztertuko dira banaka. Analisi hori taldekideen artean egingo diren jardura zehatzetaz osatuko da, artista bakoitzaren garaiko artelanen analisia trebatzeko.

Bigarren eguna bi artisten arteko artelanen azterketan oinarrituko da, beraien arteko konparaketa eginez, euskal gizartearen buruzko ikuspegi desberdinak topa ditzagun. Jardura hori osatzeko, eskola curriculumera egokitutako proposamen bat landuko da.



Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak maiatza

Argitalpenak



Eskola-Familia Toapketa eta elkarlanerako gune baten bila EIEF-FERE

Euskal Herriko Elizaren Gizarte Ekimenak *Eskola-Familia, topaketa eta elkarlanerako gune baten bila* izeneko V. jardunaldiak antolatu zituen iazko azaroan, eta orain, liburu honetan bildu ditu han aurkeztutako txostenak eta mintzaldiak. Gai honen inguruan badago zer hausnartua eta zer egina. Material hau lagungarri izango da •



Argitalpen katalogoa EHU

EHUko Argitalpen Zerbitzua bere argitalpenen berriztapena prestatzen ari da, eta katalogo-liburu honetan horietako asko bildu dira. Bost atal nagusitan banatzen da: giza zientziak, gizarte zientziak, bizitzaren zientziak, zientzia zehatzak eta materiarenak eta zientzia eta teknologia. Horrez gain, testu liburuei, aldizkariari eta doktorego tesiei buruzko beste hiru kapitulu ditu •



Urdaibai proiektu didaktikoa EUSKO JAURLARITZA

Material hau ingurumen hezkuntzarako da, eta Batxilergoko gazteei zuzendua dago. Urdaibaiko ingurumenaren analisia egiteko bideratuta dago, paisaia oinarrituz. 564 orrialdetan lau unitate didaktiko biltzen dira, bakoitza Urdaibaiko zonalde bati dagokiolarik. Irakasleen gida eta ikasleentzako materiala ditu eta material gehigarri moduan diapositibak eta Urdaibaiko biosfera erreserbaren mapa •



Bat, bi, hiru, lau, bost, Urdintxo eta Pox IKASTOLEN ELKARTEA

6-8 urteko haurrentzako Matematika CD-ROM berria kaleratu du Ikastolen Elkararteak Elkar argitaletxearekin batera. Haur Hezkuntzarako sortu duten Txanela proiektuaren 1. zikloko ikasmaterialeen artean sailkatu dute. 12 joko agertzen dira lau sail nagusitan banaturik: aritmetika, geometria, logika eta denbora. Urdintxo guakamaioa eta Pox zakurra dira gidariak •



Aitona parapentean Joxan Ormazabal ELKAR

Ipuin honetako aitonari bihurrikeriak egitea gustatzen zaio. Aitona berezia da, laster 80 urte beteko dituen arren, izugarritzko martxa baitauka. Horregatik bururatu zitzaion behin mendikaxko batera igo eta parapentean jauzi egitea. Iskabila ederra sortuko da horrekin. *Aitona bizikletan* ipuinak izan zuen arrakasta ikusita animatu zen egilea liburu hau idaztera •



Frindela Andrew Clements AIZKORRI

Nick Allen eskolako 5. urtean dago eta hizkuntza irakaslearekin xextrak izaten ditu. Hiztegi zale amorratua da irakaslea, eta bere orduan inortxok ez dio arparik jotzen. Nick ahalegintzen denean zigortu egiten du eta, zigorraren ondorioz, hitzen eta haien jatorriaren munduan murgiltzen da. Nicki plan potoloagoa bururatuko zaio gero: hitz berri bat asmatzea... •

Gazte ugari bertaratu zen Lanbide Heziketako azokara

Zazpi egunetan zehar egon zen Bilboko Nazioarteko Erakustazokan Lanbide Heziketari buruzko II. Erakusketa. *Lanbide Heziketa: aurrera goaz* leorekin 16.000 metro karratuko erakusketa antolatu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, ikasleei euren etorkizunari buruzko erabakia hartzen lagunduko dien informazioa emateko helburuarekin. Guztira 60.000 ikasletik gora bertaratu ziren, ikasturte honetan DBHko 3. eta 4. maila eta Batxilergoko 1. eta 2. maila egiten ari direnak. Horiekin batera orientatzaileak, irakasleak eta gurasoak ere hurbildu ziren.

Guztira Lanbide Heziketako 21 familia egon ziren ikusgai, eta denetarik ikus zitezkeen: autoen motorrak mar txan jartzen, soinekoak ordenagailuz diseinatzen, opiltxoak egiten, arutz lanak, izotzezko iglu baten funtzionamendua, analisi mikrobiologikoen bitartez ateratako ardoak, elektronikako instalazio bitxiak, aerobic saioak, ileapaindegiak... Bakoitzak bere gustuko txokoa aurkitzeko moduko aukera, du darik gabe.

Azken urteotan Lanbide Heziketaren egoera hobetuz doa eta Hezkuntza Sailak eman berri dituen datuen arabera, 2001-2002 ikasturtean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Lanbide Heziketa



amaitu zuten ikasleen % 63k lana aurkitu zuen ikasketak amaitu eta 10 hilabetera; beste % 20k ikasten jarraitzen du; eta gainontzeko % 16 lanik gabe dago. Eusko Jaurlaritzako arduradunak pozik agertu dira datu horiekin, ikasle asko hasten baitira lanean. Dena dela, 2001. urteko datuekin alderatuta, lau puntutan jaitsi da lanpostua dutenen kopurua. Moteltze ekonomikoak eta industrian nahiz eraikuntzan izandako enplegu galerak izan dute horretan eragina, Gasteizko Gobernuako arduradunen iritziz.

Beste datu bat emakumeen lan egoerari buruzkoa da. Oraindik ere emakume gutxiago sartzen dira lan merkatuan, nahiz eta gorako joera nabaritu.



Gazteentzako UNICEF lasterketa maiatzaren 16an Donostian

UNICEFek 6 eta 15 urte bitarteko haur eta gazteentzako lasterketa antolatu du maiatzaren 16rako Donostian. Kilometro bateko ibilbidea izango du elkartasuna adierazteko asmoz antolatu den lasterketa honek. Izen ematearen prezio sinbolikoa euro bat izango da eta horrekin garapen bidean dauden herrialdeetako haurren txertaketa bultzatuko da, beraien osasuna eta bizi kalitatea hobea ditzaten.

Urtero hiru milioi haur txerto baten bidez erraz saihas daitezkeen gaixotasunen ondorioz hiltzen dira. Euro bat emanez, milioika haurren bizitza mehatzatzen duten gaixotasunak ekiditea lortuko da; besteak beste elgorria, tetroa, poliomielitisa, difteria eta tuberkulosia.

Izena emateko eta informazio gehiagorako:

UNICEF

Tel.: 943 271 161

gipuzkoa@unicef.es

Jaiak han eta hemen

Maitzak 9

* **Herri Urrats** Senperen
"Geroa egun gurea"

Maiatzak 30

* **Ibilaldia** Leioan
"Alkarregaz heldu"

Ekainak 6

* **Euskal Eskola Publikoaren XIII. Jaia** Bilbon
"Mugak gaindituz, geuria indartu"

* **Euskal Eskola Publiko Berriaren IX. Jaia** Iruñean
"Euskarari bidea eginez"

Ekainak 20

* **Araba Euskaraz** Bastidan
"Uzta hartu, uztartuz"

Gaztelu proiektua DBHko Gizarte Zientziak Euskal Herriak



Gaur egun, inoiz baino beharrezkoagoa da Euskal Dimentsioa curriculumean ezartzeko ahalegina egingo duten irakasle taldeen partaidea aktiboa. Premia hori bereziagoa da Geografia, Historia eta Gizarte Zientzietan dagokien arloetan.

Horretaz jabeturik, Gaztelu taldeak urteak daramatza DBHko Geografia, Historia eta Gizarte Zientzietako materialak argitaratzen, eta Euskal Herriko ikastetxeetan ondo ezagunak dira beraien materialak. Orain dela urte gutxi Espainiako Historiaren Akademiak, zentralismoaren aldarrikapena eginez, euskal irakaskuntzari eraso bortitza egin zionean, Gaztelu taldearen materialetan oinarritu zen, horiek Curriculumaren Euskal Dimentsioa oso aintzakotzat hartzen zutelako, eta hori pentsamendu bakarra erakitze bidean oztopo zelako. Hori izan daiteke taldearen aurkezpenik onena. Lehen Erein argitaletxean eta orain, material berriak, Elkar argitaletxean eman dituzte argitaratu.

Hiru dira **Gaztelu** proiektuaren xedeak:

1. Euskal dimentsioari behar den lekua ematea curriculumean

Bigarren Hezkuntzarako planteatuta dauden edukien egokitzapen eta antolakuntza berriak egin dira, proiektuarekiko koherentzia gehiago izatea bilatu nahian.

Era berean, ahal den guztietan, ikaslea ikasten ari dena edo lantzen ari den gaia Euskal Herriko kultura, geografia, historia, ekonomia, politika eta abarrek ere erlazionatzen da, hori guztia barnera eta ezagutu dezan; eta aldi berean, hori, ikasteko motibagarria bihurtzeko ikasleari.

Sarritan ikusten ditugu gure ikastetxeetan Euskal Dimentsioa Autonomia Erkidegoko esparruan gertatu edo gertatzen dena soilik mugatzen diren ikasmaterialak, eta garbi dago planteamendu erreduktionista horrek ez diola erantzuten egari. Gaztelu proiektuko materialetan, egungo antolakuntza politikoa zein den ikasleari ezkutatu gabe, Euskal Dimentsioari bere lekua eta zentzuzko neurria ematen zaio (itxuragabekeriaren erori gabe), dimentsio

horren esparrua Autonomia Erkidegoko baina zabalagoa, konplexuagoa eta sakonagoa delako.

2. Proposamen pedagogiko koherentea egitea

Curriculum mota desberdinetan markatzen diren helburuak egokitzea jo ditzakegu neurri handi batean, baina, sarritan horiek ez dute inongo loturarik gero proposatzen diren edukiekin, horiek kontzeptuzerrenda huts bat besterik ez baitira. Gaztelu proiektuan, garrantzi bera eman zaie hiru motatako edukiei (kontzeptuzkoei, prozedurazkoei eta jarrerazkoei), kontzeptuak soilik landuz ezin daitezkeelako lortu lehen aipatu ditugun giza trebetasunak (problemei irtenbidea emateko prozesuak menperatzen ikasi, harremanak izateko gai izan, gizarteko arazoaren aurkako sentsibilizatu, IKTak menperatu...), beharrezkoak, bestalde, ikasleak etorkizunerako prestatzeko. Hori da helburuen eta edukien arteko koherentzia mantentzeko era bakarra.

Metodologia gidatzen duten ezaguriak hauek dira:

- Ikastunitatearen hasieran, ikasle-

ak gaiari buruz dakiena ezagutu, galdera eta jarduera bidez.

- Ikasketa prozesu aktiboa proposatzen da, eta jardueren tipologia anitz horrek autonomia pertsonaleko, hausnarketako, komunikazioko, talde laneko eta abarretako mekanismoak garatzea eskatzen du.

- Ahal den guztietan, ikaslea ikasten ari dena edo lantzen ari den gaia bere hurbileko errealitatearekin erlazionatu, Euskal Dimentsioa curriculumean txertatzea posible eginez.

- Hiru mailatako lan jarduerak proposatzen dira: lan pertsonalak, talde txikietan egin beharreko lanak eta ikasgelako taldean egin beharrekoak.

- Proiektuaren egileek onartzen dute ikasle multzo zabalentzat egindako material didaktiko batzuetatik ikasgelatan bizi diren hainbat eta hainbat egoerei egokitzen diren jarduerak planteatzearen ezintasuna, eta jakinaren gainean ihes egin dute tentazio horretatik. Hala ere, unitate didaktiko bakoitzaren hasieran proposatzen diren helburu didaktikoen laguntzarekin, irakaslea gai izango da egokitzen hori egiteko.

- Proiektuaren helburuetako bat informazio bilatze prozesuan ikaslearen autonomia bultzatzea denez, aldizkariak, prentsa idatzia, bideoak, Interneteko helbideak, mapak, atlasak, hiztegi entziklopedikoak, filmak... erabiltzea proposatzen da, eta horretarako adibide eta gida ugari eskaintzen dira.

- Ikaslea egiten ari den lana (jardueren erantzunak, lan osagarriak, hiztegia...) koaderno batean biltzea proposatzen da. Hori izan daiteke ikaslea egiten ari den lana, lortzen ari den garapena eta abar ebaluatzeko tresna egokia irakaslearentzat.

Ebaluazioari dagokionez, jarraitu izatea proposatzen da eta ikastunitate bakoitzaren helburu didaktikoekin erlazionatuta. Horretarako iradokizun, tresna, adibide eta material zehatzak eskaintzen dira proiektuan.

3. Etapako unitate guztietan barne egitura bera mantentzea

Ikaslearen ikaste prozesua berma-

tzen laguntzeko beharrezkoa ikusi dute DBH osoko unitate didaktiko denek atal berdinak izatea. Hauek dira labur-labur:

1. Sarrera orokorra egiten duen orrialde bat, unitate didaktikoan landuko diren gaiak azalduz.

2. Ikaslearen aurreiritziak lantzeko orrialde bat: "Hasi aurretik..."

3. Unitate didaktikoaren garapena.

4. Unitate didaktikoaren sintesia egiten duen orrialdea eta horren mapa kontzeptuala, amaierako ebaluazio kontzeptual gisa.


Garai berrien aurrean

Aldaketa eta zalantza garaietan bizi gara. Testu hau idazterakoan, oraindik ez dakigu garbi zer gertatuko den LOCE legearekin, nahiz eta badirudien bertan behera gera daitekeela. Bestalde, Europaren batasunerako egiten ari garen pausoak gure Hezkuntza Sistemaren hainbat xede zalantzan jartzen dituela dirudi.

LOCE legeak estatuko ikasle guztientzat eduki komunak ezartzeko ahalegin bereziak egin ditu. Horren helburua garbia zirudien: estatuko ikasle guztien ikasketak uniformatzea, autonomia bakoitzeko hezkuntzen bereiztasunei lekua kentzea eta pentsamendu bakarreko gizarte baterantz pausok ematea.

Bestalde, gure ikasleak Europako eremu berrira ahalik eta hobekien egokitze eta prestatzeko erronka dugu, baina hori ezin daiteke egin inposaketa bidez, eta herri bakoitzaren nortasun ezaugarriak kontuan izan gabe. Munduan ezartzen ari den globalizazio ekonomikoaren haizeak ezin du ekarri berekin, globalizazioa kulturala, eta mendebaldekoa dela dioten laino kultural uniformizatzaile batez bazter guztiak estaltzea.

Egoera horren aurrean, beharrezkoa da herrialde txikiok kontzientzia har dezagun. Alde batetik, ikasleei gure herriaren jakite-ondarea transmititu behar diegu (euskal dimentsio soziokulturalak izan behar du hezkuntzaren abiapuntua), eta bestetik Europako



beste herrien kultur-ondarea ezagutzen eta errespetatzen lagundu behar diegu, europar hiritar zintzo eta trebe izateko beharrezkoak diren era guztietako giza trebetasunak lor ditzaten ahaleginduz. Eta garbi dago, azken hori ezin daiteke egin LOCE bezalako legeek era subliminalean defendatzen duten ikas-irakaskuntza memoristikoa- ren bidez.

Konklusio gisa

Gaur egun curriculumaren garapena hein handi batean ikasliburuek markatutako bideetatik egiten dela ez dago ukatzerik, eta hortik irakaslearen ardurara ikasmaterialek hautatzeko neuan. Artikulu honetan azaltzen ahalegindu naizen gisa, hiru izan behar dira, nire ustez, hautaketa horren erreferentzia nagusiak: ikasmaterialek ba al duten Euskal Dimentsioaren trataerarik eta nolakoa den trataera hori, nolakoa den ikasleek trebeziak lortzeko proposatzen dituzten jardueren tipologia eta zein den jardura horiek lantzeko eskaintzen diren baliabide idatzi zein grafikoaren argitasuna eta aberastasuna.

Garai berriak, aldaketa garaiak, baina aldi berean erronka garaiak gure Hezkuntza Sistemarentzat, gure kultura nortasunari eutsi eta abiapuntutzat hartuz dimentsio europar anitza eta konpartitua eraikitze aukeraren aurrean gaudelako.

Ximon Goia – GAZTELU proiektuaren koordinatzailea

Muga guztien gainera ...euskaraz!

Bilboren bihotzean D eredua gora El Salvador ikastetxea

Bilboko El Salvador Marista ikastetxea da, 1.250 ikasle dituen Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergoraino. Eskolak tradizioa eta kalitatea ditu lera. Tradizioa 86 urtek ematen diote. Kalitatea, berriz, egunero lortu behar da. Euskarazko kalitatezko hezkuntza bilatzen dute; horretarako ikastetxean euskararen normalkuntzarako planari ekin diote, Ulibarri programaren ildoi jarraituta.

Ikastetxeak A, B eta D ereduak eskaintzen ditu egun. Gizarteak eskatzen duena argi ikusi dute euren matrikulazio datuetan: A eredua desagertu da Haur Hezkuntzan, gehiengoak D eredua hautatzen duelako. Lehen Hezkuntzan, berriz, B eredua da oraingoz nagusi, eta D ereduan A ereduan adina ikasle dabilta. Luze gabe A eredua desagertuko da ikastetxe honetan.

Ulibarri programan sartzeko eman dituzten urratsak azaldu dizkigute Txema Uriarte zuzendariak eta Alfredo Sarriguarte Euskara lan taldeko arduradurak.



Alfredo Sarriguarte



Txema Uriarte

El Salvador ikastetxea ez da atzo goizekoa; 1918an sortu zen. Ikastetxearen historian zatirik handiena A ereduak bete du; sei urte baino ez dira bertan D eredu jarri zutela, eta jada guraso berrien gehiengoak D eredua hautatzen du. Azken sei urteotan A eredua desagertu da Haur Hezkuntzan, eta Lehen Hezkuntzan B eredua nagusitu zaio. Gizartearen eskaria da hori. Ikastetxeko zuzendariak, Txema Uriartek, halaxe nabarmendu digu: *“Hemen A eredua desagertzeko bidean dago. A ereduko ikasgelak ditugu Lehen Hezkuntzako bosgarren mailatik aurrera. Eta hortik behera, geroz eta eskari gehiago dago D ereduan eta geroz eta gutxiago B ereduan. Urte gutxi barru aldaketa hori Batxilergoraino helduko da”*.

Auzo erdalduna baina eskalazalea

Ikastetxera datozen haurrak Bilbo Zaharra eta Santutxu auzokoak dira, eta gehien-gehienek guraso erdaldunak dituzte. Gutxi dira gurasoetako bat eus-





kalduna duten haurrak, eta bizpahiru ikaslek baino ez dituzte guraso biak euskaldunak. Testuinguru honetan deigarria da gurasoen gehiengoak gaur D eredua hautatzea. Txema Uriarte zuzendariak azaldu digunez, *“auzoa erdalduna izanik oso euskalzalea da, eta euskalduntzeko nahi hori Bilboko beste auzoetan baino askoz indartsuago agertzen da hemengo jendearengan”*.

Gizartean zetorren aldaketa hau lehendik ederki sumatua zuen, duela 15 urte ikastetxeko zuzendari izanak. *“Duela 15 urte, hemen zuzendari zenak eskatzen zuen sartzen ziren irakasle guztiak euskaldunak izatea. Zuzendaria ez zen euskalduna, baina etorkizunari begira, gizarteak eskatzen zuena ikusita, bazekien hori zela egin behar zuena”*. Halaxe gogoratzen du Txema Uriartek, gaurko zuzendariak, bera irakasle postuan hartu zuen zuzendaria.

Normalkuntza planean hasiak

Ikastetxea Ulibarri programan sartzeko urratsak ematen hasi dira, buru-belarri, ikasturte honetan. Iniziatiba zuzendaritzatik etorri zen, gainera, iazko ikasturtean. Zuzendaritza taldeko gehiengo euskalduna da, zuzendaria barne, eta ikastetxean euskararen normalkuntza bultzatzeko bitartekoak eta ahaleginak jartzeko apustua egin du hasieratik. Behin zuzendaritzak bere asmoa azaldu eta ikastetxeak onartuta, Berritzegunearekin jarri ziren harremanetan. Berritzeguneak azaldu die

zer pauso eman. Ikastetxea hain handia izanik, Lehen Hezkuntzara begira has-teko aholkatu diete, eta bi ikasturte bar-ru hasteko Bigarren Hezkuntzarekin, ur handitan sartuta itotzeko arriskua baitago.

Ikastetxean hartutako lehen neurria Euskara Lantaldea osatzea izan da; taldean Lehen Hezkuntzako 12 irakasle daude, eta eurek dute inurri lana anto-

**Txema Uriarte:
“duela 15 urte
zuzendari
zenak eska-
tzen zuen ira-
kasle berriak
euskaldunak
izatea. Bera ez
zen euskaldu-
na, baina etor-
kizunari begi-
ra, gizartearen
eskaera ikusi-
ta, bazekien
hori zela egin
behar zuena”**

latzeko ardura. Talde honek hausnartu beharko du une bakoitzean zein helburu eta ekintzari heldu behar zaion. Hasteko, egungo egoeraren diagnosis egin dute, ikerketak eginez ikasleen artean zein gurasoen, irakasleen eta zentroko beste langileen artean. Egoera zein den aztertuta, orain lau urtean betetzeko plangintza bat osatua dute, helburu zehatzak eta ekintzak definituz.

Ikastetxearen erradiografia eginda, ondorioak

El Salvador ikastetxean euskararen egungo egoera zein den aztertuta, hauexek dira atera dituzten ondorio nagusiak. Ikasleen artean ez dago ama hizkuntza euskara soilik duenik (kasuren bat salbu). Erabilerari dagokionez, gelaz gela soziograma bidez aztertu dute zein diren euskarazko hitzun aktiboak (alegia, ikasleek zein lagunekin egin ohi duten euskaraz) eta zein erdarazko hitzun aktiboak. Erabileran alde nabarmena omen dago ikasgelatik patiora eta, batez ere, irakaslea aurrean egon edo ez. Alfredo Sarriugartek, Euskara lan taldeko arduradun denak, halaxe kontatu digu: *“ikasleek gu hartzen gaituzte ‘euskararen pertsonifikazio’ bezala-edo. Irakasleak azaltzen garenean euskara kutsatzen dugu”*. Erabilerari eta mailari dagokionez, El Salvadorreko B eredua ere oso euskalduna dela nabarmendu digu Alfredok. *“Eta ez da nik esana, kanpora goazenean begiraleek-eta asko azpimarratzen digu-*



B ereduko haurrek duten euskara maila askok goraipatzen diete. Gakoa zera omen da: irakasle euskaldunak dituzten ikasgai guztietan euskaraz egiten dute, nahiz liburuak erdaraz eduki.

te gure B ereduko haurrek duten maila. Gakoa zera omen da: Lehen Hezkuntzan, B ereduan gaztelaniaz diren ikasgaietan (esaterako, matematika edo musika) irakaslea euskalduna bada, nahiz testu liburuak gaztelaniaz izan, irakasle horrek eskola euskaraz ematen duela B ereduan ere, euskara oinarri sendo bat finkatzeko lehen urteetan.

Irakasleen artean, berriz, batetik aztertutako zer euskara maila duten ahozkoan eta idatzian, eta bestetik erabilera zein den (ikasleen aurrean, lan harremanetan, harreman pertsonaletan...). Argi ikusi dute harreman pertsonaletan zer hizkuntzarako joera izan, gero lan harremanetan ere harako joera izaten dela. Alfredo Sarriugartek jarri digu euren kasu bat adibidetzat: *“bada irakasle talde bat ikastetxean batera sartu zena, adina ere paretsukoa dutena, eta hasiera-hasieratik lagun talde bat osatu zuten. Harreman pertsonalok gaztelaniarako joera dutenean, lan harremanetan ere nabaritzen da euskara gutxiago erabiltzen dutela*”. Dena den irakasle gelan euskara entzu-

ten dela dio, eta Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako 1. zikloko bilerak guztiak euskaraz egiten direla.


Euskaldunen presentziarik urriena zentroko langile ez irakasleen artean dago. Idazkaritzan edo harrera lekuan dauden langileak, esaterako, aspalditik daude kontratatuta, eta erdaldunak dira. Ikastetxean euskararen normalkuntzari begira egingo duten urrats garrantzitsuetako bat horixe da, hain zuzen: langileok euskalduntzea eta kontratatzen den jende berria euskalduna izatea.

Erabilera sustatzeko ekintzak

El Salvador ikastetxeko Euskara Lantaldea hasia da helburu eta ekintza zehatzak definitzen, zentroan euskararen normalkuntza lortzeko. Langileria euskalduntzea izango da helburuetako bat. Ikasleei begira, berriz, euskararen erabilera dute erronka. Horretarako hainbat ekintza burutzen dituzte. Aurreko maskota bat sortu dute, “Pisti” izeneko igela. “Pisti” maskota ikasgela eta pasabide guztietan dago, aldiro lelo desberdin batekin: “nirekin euskaraz, mesedez”, “euskalduna naiz eta harro nago”... Leloak ikasleek sortzen dituzte. Igelak ikastetxeko hormetatik boligrafoetara edo kamisetetara ere salto egingo du laster, ikasleen gertutasuna bilatzeko.



Beste proiektu oso bat ere badute euskararen erabilerari on egiten diona. “Lurraska” Ingurumen Hezkuntzarako Zentroarekin burutzen dute proiektua. Haur eta Lehen Hezkuntzako etapatan, ikasgela bera lau alditan joaten da “Lurraska” baserrira (Gernikatik bertara dago). Han ingurumenaz, baserriaz, abereez gozatu eta ikasten dute haurrek. Bertako begiraleek euskara hutsean egiten dutenez, eta haurrak euren auzotik kanpora daudenez beste gune euskaldun batean, askoz ere gehiago egiten omen dute euskaraz euren artean egonaldiko lau egun horietan. Aurrera ere esperientzia hori mantentzeko asmoa dute, beste hamaika modu asmatzearekin batera, euskara den ahotan egon dadin. •



Ale monografikoak

1) Irakurketa eta idazketa konstruktibismoaren ikuspegi-tik (agortuta)



2) Marrazki ekoizpenaren bilakaera
3) Baloreak irakaskuntzan



4) Atxikimendua
5) Vigotski

13) Jerome Seymour Bruner
12) Heriotza heziketan

6) Afektibitatea eta Sexu Hezkuntza
7) Kohlberg



8) Hizkuntza idatzia eta ikasleen aniztasuna
9) Etorkinak gure eskolan



10) Antzuola herri ikastetxearen proiektua
11) Howard Gardner



Psikomotrizitatea - HAURRENTZAKO MASAJEA - Idatzizko hizkuntzaren trebaketa pre-
 bentiboa - IPUINAK KONTATZEKO TREBAKETA - Literatur txokoa - IDAZKERA "TXA-
 RRA"? EZ, ESKERRIK ASKO - Historiaren txokoa- ARTEAREN TXOKOA -

MODENAKO (ITALIA) UDAL HAUR ESKOLAK - Gutxieneko informatika ez dakigunontzat - KLARIONATIK
 SAGURA - Linux sistema eragilea - POWER POINT - Neobook - ORDENAGAILUAREN ERABILERA MUSIKA
 GELAN - Dantza eta perkusio afrikarra - ANTZERKI KLOWNA - Antzerkia nerabearoan - EUSKARAZ ARI-
 TZEKO KANTAK ETA JOLASAK - Jolas kooperatiboak - BALOIAREKIN TALDEAN JOLASTU -



Donostian
 Uztailak1eta2

Goizez
 9:00-14:00
 Arratsaldez
 16:00-18:30

Heriotza heziketan - MATEMATIKAREN EBALUAZIOA DERRIGORREZKO IRAKASKUNTZAN - Gogo erabil-
 keta - BIDEOA - Estresa irakaskuntzan - LANBIDE MODULUEN PROGRAMAZIOA - Zer egin dezakegu
 gelan haur hiperaktibo eta arreta gabekin? - BOST. AXOLA ZAIT!!! - Hezkuntza aniztasunean -
 BIZIKIDETZA HEZKIDETZAILA

Matrikula zaitez

maiatzaren 21a baino lehen!

Tel: 943 37 14 08

www.hikhasi.com



Hezkuntzaren Teoria
 eta Historia Salla